

ELKARRIZKETA: ABEL ARIZNABARRETA ETA IMANOL IGEREGI •  
ESPERIENTZIAK: COS ART • EKARPENAK: LABIRINTOAREN ERBESTEAN •  
GALDEIDAZUE: JUAN MATA • SAGARDOETXEA • MARTXEL TOLEDO

**hh**  
hik hasi

**146**

4 EURO • 2010EKO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**Emmi Pikler: haurren autonomia**

Neus Pañella, Ezozi Arizaga eta Montse Fabres

+8 urte



Pozik eta alai bizi zen Patziku aitarekin eta amarekin, Adele txikia jaio den arte: izan ere, beti negarrez, edo korroskadaka, edo titia xurgatuz ari den gauza horrek hankaz gora jarri du Patzikuren bizitza.

**PATZIKUREN PROBLEMAK**

Katixa Agirre • Mattin

+10 urte



Alferra da Joxeme: gauza guztien gainetik ohean gelditzea gustatzen zaio, ezer egin gabe. Baina atzetik ditu beti helduak, hau eta hori egiteko aginduz. Joxemek, orduan, ohelikopteroa asmatuko du, ohetik mugitu gabe edonora joateko.

Xabier Mendiguren • Jon Zabaleta  
**JOXEMEREN ASMAZIOAK**

Gure LITERATURA zutaz mintzo da

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

**elkar**

+12 urte



Bizitzako kontuak 100 ipuinetan, umorez beteak, pentsatzeko eta gozatzeko. Haurrentzat eta haur izan zirentzat ere egokiak.

**EHUN IPUIN HITZ GUTXITAN**

Joxan Ormazabal • Jon Zabaleta

Antxine Mendizabal • Morkots  
**NIRE AMAK EZ DAUKA ERREMEDIORIK**

Iratik hamabi urte ditu eta oso argi ditu bere nahiak eta helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu gauza askotan; espezial samarra da, xelebrea ez esateagatik.



+12 urte

# aurkibidea



**8**  
gaia

## EMMI PIKLER

Emmi Pikler Hungariarraren ildo pedagogikoa ezagutzen ari da pixkanaka Euskal Herrian. Autonomia lantzeko haur txikienekin nola jokatu behar den ez zegoen oso argi eta badirudi Piklerren teoriak eta praktikak argia eskaintzen ari direla.



**16**  
elkarrizketak

## IMANOL IGEREGI ETA ABEL ARINAZBARRETA

Euskal Herriko Ikastolek europar kooperatiba elkarte osatu dute. Antolaketa berrian eragina handia izango duten bi kide elkarrizketatu ditugu. Erakunde berriak izango duen eragina eta aurrera begirako erronkei buruz aritu gara.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**EMMI PIKLER**

HAURRAREN AUTONOMIA

**16** elkarrizketa

**SIMANOL IGEREGI ETA ABEL ARIZNABARRETA**

**24** esperientziak

Cos Art ezagutzen. Elena Gorrotxategi

**26** ekarpenak

Labirintoaren erbestean. Galtzagorri

**28** galdeidazue

Egia al da irudiaren egungo indarrak irakurketaren praktika kolektiboa kaltetu duela?

Juan Mata

**33** berriak

**40** nora joango gara?

Sagardoetxea

Zuhaitzetik upelera

**42** Atzeko atetik

Martxel Toledo

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilá eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa:

[hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-02-24). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala martxoa

## *Euskara, esku artean irristan doakien gaia*



**Eskolak itxi dituzte, ez ikasle galtzeagatik, baizik eta beren seme-alabak euskara ikasi gabe utzi nahi duten guraso faltagatik.**

Zirauki Lizarraldeako herri bat da, Nafarroako Gobernuak egin zuen herrialdearen zatiketa artifizial hartan zonalde ez-euskaldunean geratu zena.

Zonalde bakoitzari bere hizkuntza legeak ezarri zitzaizkionez, besteen artean, eta horren ondorioz, Ziraukin ezinda euskal ereduen eskaintza publikorik egin. Eta hori horrela da legez.

Ikasturte honetan Ziraukiko eskola itxi egin behar izan dute ikaslerik ez dagoelako. Arazoa, logikoena hori litzatekeen arren, ez da herrian haurrik ez dagoela. Aitzitik, ez dago bere seme-alabak euskara ezagutu eta ikasi gabe hezi nahi duen gurasorik. Eta hori horrela da, euskal eredurik ez duen eskolaren itxiera, alegia, gurasoen borondatez.

Ziraukiko kasua ez da, gainera, euskal ereduko eskaintzarik ez egiteagatik itxi den eskola bakarra.

Guraso horiek nahiago izan dute beren seme-alabak eredu euskaldunak eskaintzen dituzten beste herrietako eskoletara eraman. Horrek suposatzen

duengastu, arrisku, esfortzu eta herrien garapen normalerako desorekarekin.

Nafarroako Parlamentuak eremu ez-euskaldunean zeuden Aranguren, Beraskoain, Galar eta Noain, eremu mistoan sartzea erabaki du. Ondorioz, besteen artean, eskolan euskaraz ikasi ahal izango dute. Hori, herri bakoitzeko udalbatzek gehiengo osoz onartzen badute aldaketa.

Lapurdikoko Makean, berriz, ikastola berri bat eraikitzeke lehen harria ipini dute bertakoek. Izan ere, herriko eskolak B eredu besterik ez baitu eskaintzen, eta herritarrek jada badakite eredu hori ez dela nahikoa euskalduntzeko.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan amaitu da aurrematrikulazioa. Datuak argiak eta zalantzarik ez uzteko modukoak dira: 4 ikasletik 3 ikaslen gurasok bere seme-alabak euskarazko ereduetan ikasteko borondatea eta nahia agertu du.

Eta dena esate aldera, Hezkuntza

Sailak eta hainbat alderdi politiko eta eragile kontrakoan tematu badira ere, jendartearen gehiengoak, esanak esan eta eginak egin, beren seme-alabak eleaniztunak nahi ditu; eleaniztun euskaldunak, baina.

Demokrazia hitzetik hortzera darabilten horiek, entzuna eta ikusia behar ko lukete dagoeneko jendartearen gehiengoa, askatasunez, esaten ari zaiena.

Gero eta argiago ikusten ari gara euskararen gaiak irrist egiten diela administrazioei esku artean. (Euskarari estuegi gertatu zaio administrazioek ezarri zioten trajea. Ez da han kabitzen eta lehertzen ari da handik eta hementik).

Urtetako eskarmentua, egindako ebaluazioak, eta ikerketa zientifikoak mahai gainean dituzte. Baita hezkuntza eragile nagusienek babestu eta ontzat emandako proposamenak ere.

Zer da, orduan, falta dena? Ikusi nahi duenak hortxe du bista aurrean!

# kronika

Prest dago guztia martxoaren 13an EHBE Euskal Herriak Bere Eskolak deituta Bilbon egingo den manifestaziorako. “Mobilizatzeko arrazoiak ugariak dira. Inposaketaz inposaketa bizi gara gure ikastetxeetan”, salatu du EHBEk. Agintariek euskal hezkuntzari hegoak moztu nahi dizkiotela uste du EHBEk. “Egunez egun eta herriz herri eraikuntzan murgildu eta euskaldunduko duen eskola bat eraiki; euskal curriculuma garatu; Euskal Herrian oinarritutako unibertsitate bat eraiki; pedagogia aurrerakoia garatu...”, lan handia dago egiteko, eta horiek guztiak bildu nahi ditu EHBEk Hezkuntza Deialdian. Ekitaldia eta manifestazioa aldi berean egingo dira. Arriagan hasiko da 17:30ean eta bertan bukatuko da, Plaza Biribiletik eta Udaletxetik pasa ondoren. “*Inposaketarik ez! Euskal Herriak bere hezkuntza!* lelopean, kultura, aldarrikapena eta koloreak batuko dira Bilbon”.



## **Eskolim** elkartearen lehen biltzar nagusian izan da Seaska, Alsazian

Seaska (Euskal Herria), Bressola (Katalunia), Diwan (Bretainia), Calandreta (Okzitania) eta ABCM-Zweispachigkeit (Alsazia) lurralde hizkuntzeta-ko murgiltze eskolen bost sareek osatzen dute iaztik *Eskolim* elkarteak. Taldea Ziburun sortu zen joan den urtean, murgiltze pedagogia sustatzeko eta zaintzeko helburuarekin. Horixe baita beraien ustez «lurraldeko hizkuntzen erabilpen soziala eta ikasle elebidunak erdiesten dituen eredu bakarra».

Seaskak jakinarazi duenez, *Eskolim* elkarteak bere lehen ohiko biltzar nagusia egin zuen otsailean Ingersheimen (Haut-Rhin, Alsazia). Lehen biltzar

nagusian murgiltze ereduko eskolek elkarlanaren indartzeko nahia berretsi dute. Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzen dituen konfederazioak azaldu duenez, «gure pedagogi ereduak dakartzan emaitza baikorrak eta arrakasta goraiatu dira, bereziki lurralde hizkuntzen mailan. Baina baita frantsesa eta bertze ikasgai guzrien lorpen mailan ere».

### **Lege baten beharra**

Bestalde, *Eskolim* elkarteak adierazi duenez, lurralde hizkuntzen gaineko lege baten onarpena beharrezkoa da murgiltze sistema garatzen duten eskolentzako. «Hemendik aurrera, lurralde hizkuntzak Frantses ondarearen barne direla kontsideratzen ditu Konstituzioak, baina lege batek baizik ez ditu gure eskubideak finkatuko eta hizkuntza hauen erabilpen soziala bermatuko», gaineratu du. Era berean, biltzar nagusi horretan elkartearen zuzendaritza berretsi zen. Hartara, Patrig Herve bretainiarra izanen da *Eskolim*-en lehendakaria, eta Seaskako lehendakaria, Paxkal Indo, berriz, elkarteko idazkaria. Diruzain lanetan Jean-Louis Blener okzitaniarra ariko da.

# "Familiak eta eskolak, sozializatze lanera mugatu beharrean soilik, jendea bere buruarekiko askatasun eta erantzukizunaz kontziente den subjektuan eraldatu behar dute"

Alain Touraine



## Lau ikasle berritik hiruk euskara hutsezko ereduak aukeratu dute EAEn

Bi urteko ikasleen guraso gehien-gehienek euskararen aldeko hautua egin dute aurten ere Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Iaz baino bi urteko 660 ikasle gehiago eskolatuko dira aurten, 18.240 gutxira. Horietatik, 13.589 haurrek D ereduaren ikasiko dute. Bere duan 4.135 izango dira eta A ereduaren, aldiz 732. Beste modu batera esanda, A ereduaren ikasiko duen haur bakoitzeko hemezortzi ariko dira D ereduaren. Dena den, iaz baino 144 eskari gehiago izan dira A ereduaren eskolatzeko. Eta B ereduak ere zertxobait egin du gora, iaz baino 170 izen emate gehiago izan baitira.

Aurtengo aurrematrikulazio kanpaina diseinatzerako orduan, Jaurlearitzak arreta berezia jarri nahi izan dio hizkuntza-ereduen «eskaera erreala» eza-gutzeari, batez ere eskaintzen ez diren hizkuntza-ereduen eskaerari. Datuak eskuan, Jaurlearitzak onartu behar izan du datuak ez direla esanguratsuak izan.

### Lurraldez lurralde

Herrialde guztietan da nagusi D ereduak. Aipagarria da Arabaren kasua, izan ere, D ereduak gorantz jarraitzen du, eta B ereduari gailendu zaio aurten ere. Haur Hezkuntzako ikasleen erdia baino gehiago euskarazko ereduaren arituko dira, eta ia beste erdia B ereduaren.

Gipuzkoa da oraindik D ereduak indar gehien duen herrialdea. Lehen aldiz matrikulatu diren bi urteko haurren %88,79k euskara hutsezko ereduaren hasiko dute hurrengo ikasturtea. Hamar ikasle bakoitzeko B ereduaren hautatu du, eta erdarazko A ereduaren oso gutxi aukeratu dute, 153 ikasle baino ez.

Bizkaian ere D ereduak da nagusi, izan ere, %70ek euskara hutsezko ikasteko nahia adierazi dute. Bere duan ikasle bakoitzeko kopuruei eutsi die, eta A ereduaren ikasle bakoitzeko nahia 465 haurrek erakutsi dute.

Nafarroako Parlamentuak eremu mistoa beste lau herritar hedatzea onartu du. Aranguren, Beraskoain, Galar eta Noain herriek izango dute eremu mistoan sartzeko aukera. Orain, Iruñerriko lau herrietako udalbatzek erabaki beharko dute eremuz aldatu edo ez; gehiengo absolutua beharko dute. Nafarroako Parlamentuak 1986. urtean onartu zuen Euskararen legea, eta joan den otsailaren 18an aldatu zen lehen aldiz. Hain zuzen ere, IU-NEBek egin zuen eremu mistoa zabaltzeko proposamena. Alderdi horrez gain, NaBaik, PSNk eta CDNk bozkatu zuten proposamenaren alde. UPN alderdia izan zen aurka bozkatu zuen bakarra. NaBaik eremu mistoa zabaltzearen alde bozkatu duen arren, Euskararen Legearekin oso kritikoa izan da Maiorga Ramirez bozeramailea. Euskararen Legeak nafarrak bizi diren tokiaren arabera mailakatu eta diskriminatu egiten dituela salatzen du. «Ni Tafallakoa naiz, hirugarren mailako nafarra, eremu ez-euskaldunean bizi naizelako». Haren irudiko, 1986ko legeak, euskararen alde egin beharrean, herritarren eskubideak «murrizten» ditu.

# GAIA

**Emmi Pikler**

***Haurraren autonomia***







Emmi PIKLER

Joan den otsailaren 5ean Durangon eta 6an Donostian 380 lagunek hartu zuten parte HIK HASIk antolatutako *Emmi Pikler: haurra-  
ren autonomia* jardunaldietan.

Ezosi Arizaga Euskal Herriko Pikler-Loczy sareko partaidea, Montse Fabres Kataluniako *Mestres per l'autonomia* taldeko kidea, Neus Pañella Kataluniako *Torrelles* haur eskolako esperientzia batekin, Aintzane Buldain eta Alfredo Hoyuelos Txantreako (Iruñea) *Izar-tegi* haur eskolan egindako esperientziarekin eta Ana Araujo Txantreako *Egunsenti* haur eskolako esperientziarekin aritu ziren.

Ekarpenak aurkezten joango gara hurrengo aleetan. Ondorengo orrialdeetan Ezosi Arizagak egindako ekarpenaren atal nagusiak irakurri ahal izango dituzue.

# G

## Pikler-Loczy Institutua: haur hezkuntzan erreferentea



Ezosi ARIZAGA

Haur Hezkuntzako 0-3 urte bitarteko umeez, batez ere gizarte industrializatuetan, 4-5 hilabetetik aurrera denbora asko pasatzen dute hezitzaileekin. Ume horiek denbora luzea pasatzen dute haur eskolan. Eta garai horretan, oraindik, menpekotasun handia eta harreman egonkor baten beharra dituzte. Hori dela eta, haurra-  
ren psikis-moa kaltetua gerta ez dadin oinarritzko zenbait kontzeptu barneratu behar ditugu. Bestalde, prebentzioari dagokionez egin daitezkeen zenbait gauza ere hartu behar dira kontutan. Horren guztiaren inguruan lanean ari garen profesional askoren ardurak eraman gaitu Emmi Piklerren metodoan sakontzera.

### Piklerren biografia

Emmi Pikler 1902an Vienan (Austria) jaio zen hungariar familia judu batean. Ama maistra izan zuen eta aita artisaua. Lehen haurtzaroa Budapestean pasatu bazuen ere, Vienara itzuli zen medikuntza ikastera. Budapesteko kirurgia ospitalean lortu zuen 1927an, pediatriako doktoretza. Garai hartako irakasle batek, gerora bizitza osoan erabiliko zuen sendagile ikuspegia irakatsi zion. Hau da, haurra-  
ren behar fisiologikoak kontutan hartzeaz gain, prebentzioa lantzeak zuen garrantzia. Piklerrek eta gainerako ikasleek, behin eta

berriz entzuten zuten hori irakaslearen ahotik, baina ez horisoiilik. Egunean zehar haurrak zaintzeko izaten ziren une guztiek, eta bereziki umearekin zuzenean egotekoak zirenek, ahalik eta egokienak izan behar zutela esaten zuen. Horrela, adibidez, zorrozki debekatuta zegoen ospitale hartan haurra gaixorik egonda ere berak onartzen ez zuen goilarakada bat gehiago ematea.

Ospitale hartan, haurrak ez ziren denbora guztian ohean egoten. Jolas egiteko txokoak zituzten, bereziki horretarako pentsatuak. Sendagileek agintzen zieten ez zen ohean egotea izaten, jolas egitea baizik. Era berean, kontutan izaten zuten haurrentzako ohe edo sehaskak txikiak eta estuak ez izatea. Nahiko zabalak ziren, umearen mugimendua errazten zutenak. Sasoi hartan, haurrak faja batekin biltzeko ohitura zegoen; baina erietxe hartan haurren mugimenduak errazten zituzten arropak jartzen zizkieten. Beste gomendio bat ere bazen: umeari edozein azterketa edo tratamendu egin behar zitzaionean, desatseginena izanik ere, haurra negarrez jarri gabe egin behar zela. Kontutan eduki behar zuten esku artean zuten haurra bizia eta sentikorra dela eta guztiaz jabetzen dela.

Erietxe hartan bazen Emmi Piklerri atentzioa eman zion gauza bat: estatistiken arabera, ospitaleko istripuetan hezur haustura gutxiago izaten zituzten langile klaseko familietako hurrek, gainerakoek baino. Hau da, kalean jolas egiten denbora gehien pasatzen zutenei gutxiago apurtzen zitzaizkien hezurak, etxeetan babestuta eta diziplina handiaren menpe bizi zirenei baino. Orduan hasi zen Pikler libre mugitu daitezkeen haurra kontu handiz aritzen dela eta erortzeko modu egokiak aurkitzen dituela benetan sinisten.

1935ean familiako pediatra lanean hasi zen Pikler, Budapestean. Hamar urtez aritu zen horretan lanean eta bere la-

# Pikler-Loczy Institutua

naren ardatz nagusia, haurrak artatzeaz gain, behaketa izan zen. Piklerrek behala aitortu zuen haurrak jaiotzen den unetik garatzeko konpetentzia programa konplexu eta sendo bat dakarrela. Hurrengo urteetan ehun familiarekin elkarlanean ikerketa eta azterketa lan sakon bat egin zuen.

Piklerren lanaren zutabeetako bat gurasoei euren haurrak behatzen laguntzea izan zen: “Zer daki zuen haurrak egiten? Ez zer falta zaion ikasteko, zer dakien baizik”. Horrela, haurrek berez garatzeko duten gaitasunean konfiantza izateak duen garrantzia deskubritu ahal izango zutela esaten zien. Piklerrek azaltzen zien haurrarenkin zaintzako uneetan lasai egotea eta guraso eta umearen arteko harremana plazerean oinarritzea ona zela; haurrari ongizate fisikoa, neurologikoa eta psikikoa handia ematen ziola. Honakoa behin eta berriz errepikatzen zien gurasoei: “Umeari bere inizatibek eragiten diote ikaskuntzarako gogoia, harremanetan sozializatzeko bidea eta pertsona izateko sentimendua edukitzea”. Piklerren ustez, prebentzioa ez zen gaixotasunei aurre egiteko sendagaiak erabiltzea. Beretzat garrantzitsuena, prebentzioari buruzko ezagutzak edukita, haurrak gaixotu ez zitezkeen eguneroko lana nola egin behar jakitea zen. Era berean, gurasoei azaltzen zien haurrak beti ikasten duela berez, bere unea iristen denean. Bai eserita egoten eta baita ibiltzen ere. Helduak esertzeran ez arren, edo oinez ibiltzeran eskutik helduta joan ez arren.

Piklerren metodoaren originaltasunaren funtsa ondokoan oinarritzen da: haur txikiak bere inizatibaz sortutako ekintzan aritzeak, bere garapenari eskaintzen dion funtzio konstruktiboaren eta elaboratzailearen kontzeptu

pedagogikoa aitortu izana.

Hori guzti hori, bere kontsultetan egiaztatzen zuen, haurrek nola funtzionatzen zuten behatzen zuelako. Haurrak, bere kabuz uzten zuenean (amaren presentzian), egiten zituen mugimenduak behatu zituen. Ikusi zuen, txikitatik eskutxoekin jolas egiten dutela, eta ekintza horretan zentratzen direla. Hankatxoekin ere egiten dutela jolas, edo eskuartearen duten objektuak batekin. Piklerren metodoaren beste oinarrietako bat jaio zen hortik: “Haurrak bere zereginetan bakarrik egoteko gaitasuna du, harreman egonkorreko heldu baten presentzian, giro ezagunean, lasaian eta seguruan sentitzen baldin bada”.

Pikler ohartu zen, berak esku hartzen ez zuenean, haurrak une horretan egin behar zuena egiteko estimulu propioak sortzen zituela. Mugimendu berri bat egin behar baldin bazuen, hori lortzeko jarraitzen zuen prozesua ikusi zuen; zein mugimendu txiki egiten zituen bere burua erregulatzeko. Behaketei esker ikusi ahal izan zuten haurraren jarduera etengabekoa dela ikasketak berri baten lorpen osoa izan arte.

Ondorengo lanetan, datu gehiago bildu zituen eta bere sendagile ikuspegiarekin batera, bere ikuspegi pedagogikoa sendotzen joan zen. Lan horietan argi utzi zuen umearen berezko garatze gaitasunak kontutan hartzen ez badira, eta pentsatzen bada, helduaren esku-hartze zuzena behar duela garatzeko, haurra sekula ez dela zeharo autonomoa izatera ailegatuko.

Piklerrentzat haurraren autonomia kontzeptua ez da, soilik, haurrak modu mekanikoan zer egiten dakien ikustea. Helduarekin dagoenean berarekin batera izandako inizatiba, kooperazio eta elkarrekintza esperientzien lorpena baizik. Piklerren hitzetan, haurra-



renganako begirada enpatikoak, hots, bizitzako lehenengo momentutik haurra pertsona bezala hartzeak garrantzia izugarria du.

Horrelaxe pasatu zituen hamar urte pediatria lanean, eta ideiak gero eta argiago zituenean honako agindu edo argibideak idatzi zituen:

- “Errespetua izan behar zaio haurraren izate osoari. Bizitzako lehen unetik pertsona aktiboa, bizia, sentikorra eta harbera dela kontutan hartuz”.

- “Konfiantza izan haurraren berezko gaitasunetan eta bere kabuz egindako ekintzak aitortu, bere bizitzako protagonista dela onartuz”.

- “Gorputza zaintzeko uneetan ere haurra aktiboa dela eta harreman horren bizipenak pertsona izatearen sentimendu, bai fisiko eta baita psikikoa ere, sortzen diola aintzat hartu”.

- “Prozesuak ez aurreratu. Ez eragin jarrera edo mugimendurik ez bada bere kabuz horraino iritsi. Helduak ez esku-hartzea garrantzitsua da”.

- “Haurrak bere kasa dagoenean, helduaren gertuko distantzia behar du, ez estutuko duen inor”.

Pikler une historiko zailean aritu zen lanean, Hungarian. 1917tik 1945era, hau da, 30 urteren buruan Errumaniaren okupazioa, gerra zibila, urteetan gobernu ezegonkorrak, nazien



okupazioa eta juduen aurkako jazarpena, Armada Gorriaren okupazioa eta horrekin Errusiak ezarritako erregimen komunista bizi behar izan zituzten, berak eta hungariar guztiak. Hala ere, emakume hark ekimen handia erakutsi zuen.

Piklerri II. Mundu Gerra profesional bezala ezagutzea egokitu zitzaion. Garai hartan, haur asko geratu zen umezurtz eta beste asko familietatik atera behar izan zituzten tuberkulosia zabaldu zelako. Piklerrek haur horiek zein baldintzatan bizi ziren ikusi ahal izan zuen eta kostatu egiten zitzaion onartzea. Bere ikuspegi pediatrikoa ezagutarazi ostean, 1946an Loczy hiriko umezurtegiako ardura eta zuzendaritza hartzea eskaini zioten. Etxearen ize-na Loczy zen, izen bereko kalean kokatuta zegoelako. Etxe ederra zen, familia bat bizitzeko ezinhobea. Baina umeruztegiarentzat, instituzio gisa, ez zituen baldintza egokiak betetzen. Dena den, bazuen Pikler liluratu zuen zer-bait: kanpoko aldean zeuden lorategi ederra eta zuhaitz ugariak.

Piklerrek benetan sinisten zuen familia ez izatea ez zela oztopo bat haurraren garapen fisiko eta afektiboa bermatzeko. Uste zuen, haurraren garapen orekatua ahalbidetu zitekeela baldintzak eskainiz gero. Era berean, argi

zeukan bere proiektuan ez zela inondik inora haurrarekin esperimentatuko, eta praktika hartan ez zela inprobisaziorik egongo. Piklerrek, bere heziketa pedagogikoa nola gauzatu zen zehazten zuen gidoia ongi irudikatuta zeukan. Batetik, haurraren zaintzen esparruan beti heldu erreferentzial berdina izatea atxikimendu ziurra bermatu ahal izateko. Eta bestetik, heziketa horretan haurrak autonomoak eta jakin-min handikoak izatea. Hori ez zen asmo soil bat, institutuko eguneroko lanean bete egiten zen. Eta egun ere hala izaten jarraitzen du.

Praktika hori aurrera eraman ahal izateko behar beharrezkoa da haurrak eta helduak elkar ezagutzea. Piklerrek, baina, Loczyra iritsi zenean ez zuen lan erraza izan. Baldintza materialak kaskarrak eta desegokiak ziren. Gainera, bertan zeuden giza baliabideek zerikusi gutxi zuten umearen bizitzarekin. Bertako langile, hezitzaile eta zaintzaileek lan ordu gehiago pasatzen zituzten beste zereginetan umearen inguruko lanetan baino. Hori horrela, bere metodologia aurrera eramango bazen, instituzio esparrua berrantolatu behar zuen. Baldintza materialei zegokienean irtenbidea aurkitu zezaket, baina beretzat kezkarriagoa zen hezitzaileek konfiantza gutxiarekin eta kontraktasunez ikusten zutela ezagutzen ez zuten lan bat egitea. Umearekin egotea, hain zuten.

Pikler ez zegoen batere gustura aurkitu zuen lan egiteko moduarekin eta hiru hilabeteren buruan ia hezitzaile guztiak kaleratu zituen. Segituan aurkitu zituen ordezkioak, titulazio handirik gabeak baina umeekin eta umearen munduan interesatuta zeudenak.

Piklerrek haurraren heziketa integrala aldarrikatzen zuen. Pediatra naturalista gisa, haurrak osasuntsu egoteko

**“Haurraren berezko garatze gaitasunak kontutan hartzen ez badira, eta pentsatzen bada, helduaren esku-hartze zuzena behar duela garatzeko, haurra sekula ez da zeharo autonomoa izatera iritsiko.”**

gorputz zaintzaren kalitate ona oso garrantzitsua dela zioen. Baina ez hori bakarrik, oso garrantzitsua da, baita ere, kanpoko bizitza egitea eta elikadura zaintzea.

Loczyn, hasieran, 0-3 urte bitarteko haurrak besterik ez ziren hartzen. Denborarekin, egonaldia 6 urtera arte luzatzea erabaki zuten, harreman egonkorrek umearen garapenean zuten garrantziaz ohartu zirelako. Bitarte horretan, adopzioak edo etxera bueltatzeak ematen ez baziren, behintzat.

Loczyko praktika ezaguna egiten hasi zen Hungariatik kanpo ere. Horrela, 1968tik 1970era bitartean OME Osasunerako Mundu Erakundearekin batera ikerketa lan sakon bat abiatu zuten. Lehen haurtzaroa instituzioetan pasatzen duten umeek kalte psikikoak, neurologikoak eta fisikoak izatea nahiko ohikoa zen. Loczyn zeuden umeek, baina, ez zuten horrelako patologiarik ageri. Hori frogatzeko ehun umeren garapena aztertu zuten hamar urtetan.

1970. urtean Loczy Hungariako umezurtegiako institutu metodologiko nazionala izendatu zuten, eta 1984an hil zen Emmi Pikler Budapesten bertan. Ondoren, bere obraren jarraitzaileek, Pikler-Loczy izena jarri zioten institutuari, eta 1989az geroztik fundazio bezala funtzionatzen ari da. Eta formazio zentro bezala zabalik jarraitzen du.



# Piklerren metodo pedagogikoa

## Metodo pedagogikoa



Adituek diote Loczyn haurren zaintzak zientzia eta artea uztartzen dituela. Loczy metodoak badu zerbait miresgarria ikuspegi pedagogikotik begiratuta: egunerokotasuna hezkuntzaren mamia bilakatu izana, hain zuzen. Pikler Loczy metodoak hiru zutabe nagusi ditu, eta bakoitzak heziketa globalaren balioa du.

1.- Umearen ziurtasun fisiko-afektiboa bermatzea heldu erreferentzial egonkor batekin, eta bakarkako harremanean oinarritua. Adin horretan behar fisiologikoak ez direlako psikikoe-tatik bereizten.

2.- Umeari mugimendu autonomo librean garatzeko behar dituen baldintzak eskaintzea. Bere garatzeko gaitasunetan konfiantza izatea, bere ekimenak errespetatuz eta ulertuz, mugimenduak eta jarrerak bereganatzeko prozesuan helduak esku-hartzerik izan gabe.

3.- Umeari bere beharrak asetuta izan ondoren, ekintza autonomoan sortutako berezko jarduerara librean ari-

tzeko denbora eskaintzea. Horretarako beharrezkoak izango diren objektu eta jostailu ezberdinak bere eskura jarritz.

Metodo hori gauzatzea ez zen lan erraza, ezta gutxiagorik ere. Metodologia barneratuta izateaz gain, bihotzean ere eduki beharra zegoen. Judith Falk doktoreak, Piklerren ondoren Loczy institutuko zuzendari izan zenak, hausnarketa garrantzitsua egin zuen horren ildotik: "Eman daitekeena baino gehiago ezin da eman, baina ematen den orok maitekorra eta segurua behar du izan".

### Hezitzaileen prestakuntza

Piklerren metodologia aplikatzeko, institutuan lan egiten duten guztiek jakin behar dute zer den esku-artean daukatena eta zein den proiektuaren funtsa. Hori dela eta, bertako hezitzaileak ez dira umearekin egotera pasatzen formazioa amaitu arte. Honakoa ikasten dute hezitzaile guztiek haurra hartu aurretik:

- Haur talde baten zaintza guztien ardura izango duela umearen egonaldi osoan zehar.

- Errespetua eta entzute osoa eskainiko zaizkiola haurri, bai momentu pribilegiatuetan eta baita gertuko distantzian ere.

- Haurren erritmoak eta seinaleak kontutan hartzen.

- Haurren gorputza tratatzerakoan: nola zaindu, nola hartu, nola jaso, nola sostengatu, nola utzi...

- Gorputz zaintzak samurtasunez eta umearekin aurrez-aurre egiten.

- Haurri egingo zaion guztia, aurrez, hitzez jakinarazten.

- Zaintza uneetan haurra solaskide aktibo gisa hartzen, bere kolaborazioa eta ekimena itxaroten eta aitortzen.

- Haurren garatzeko gaitasunetan konfiantza izaten, eta prozesuetan ez aurreratzen. Mugimendu edo jarrera zehatz bat aurkitzera behartu gabe.

- Besoetan edo altzoan duenean mugimenduak egiteko askatasuna eskaintzen.

- Haurren garapenaren inguruko behaketak egiten eta jasotzen.

- Ez dela haurren ama.

### Zaintzak

Loczyko lan metodo proposamena ez da zorrotza, baina bai oso zehatza. Dena aztertzen da, eta egunero jasotzen da, idatziz, haurri gertatutako guztia. Zerbait indarra badu Loczyn hori haurrekiko errespetua da. Egunerokotasunean umearen erritmoa zeharo errespetatzen da eta hasieratik adierazten zaio gertatuko dena.

Egiteko modu hori koreografia



**“Mugitzea, azken batean, mundurantz bidea egitea da. Eta oso garrantzitsua da bide hori norberak egitea. Haurra, bide hori egiten ari denean, bere burua aurkitzen ari da. Nolako funtzionamendu autonomoa izan duen ezagutzen du pixkanaka, zer nolako estrategiak erabiliiko dituen independentea izateko, sozializatzeko...”**



deitzen diote Loczyn. Umeari iristen zaion guztia zeharo erritualizatuta dagoelako. Haurrak uneoro daki zer dator kion, hasieratik horrela irakatsi zaio-lako. Bere bizitzako sekuentzia bakoi-tzak bestea dakar ondoren. Haur bat besoetan hartzen dutenean beti orde-na berdina mantentzen dute. Hau da, haur bat besoetan duela zaintzailea hu-rrengo umearengana joaten da eta esa-ten dio: “Mikelen ondoren, zu izango zara” Horrek bere bizitzan zer gerta-zen den ulertzen laguntzen dio haurra-ri. Eta era berean, umearen segurtasun fisikoa eta afektiboa integratzen lagun-tzen du.

Zaintzetako une erritualizatu horie-tan behin eta berriz adierazten zaio zer egingo zaion, eta haurrak nola erreak-zionatzen duen behatzen da. Hasieran txiki-gia izango da, baina, handitzen

doan heinean zer etorriko zaion uler-tzen joango da. Haurrak gertatu aurre-tik jakingo du zer espero behar duen helduarengandik. Ez dago ezusteko-rik, haurrak badaki, hitzez esaten zaio-lako.

Txikitatik hezitzaileak bere gorpu-tzean zer gertatzen den ulertzen lagun-tzen dio haurrari Loczyn. Baina ez hori, soilik. Prozesu horretan biak elkarre-kin daudela ere ulertarazten dio. Haur-ren ekimena, txikia izan arren, erres-petatu egiten da eta baita goraiatu ere. “Lortu dugu!” bezalako adierazpenak entzuten dituzte umeeek.

Hori guztia gune fisiko berean ema-ten da. Haurrek hasieratik ezagutzen dute lekua, dena dago ordenatuta eta hori da une bakoitzean haurrari era-kusten zaiona. Adibidez, aldatzeko mahaia beti da berdina, bainuontzia le-ku berean dago, jateko espazioa beti berdina da... Hau da, umeari, espazioa ezagutu arte ez zaio gune berririk era-kusten. Hori ondo ezagutu duenean, pixkanaka gune berriak erakutsiko zaiozkio, unean unekoak. Eta gainera aurrez jakinarazi egiten zaio.

Haurrak koreografia horri esker

ikasten du bere txanda itxaron behar duela. Hezitzaileak erakutsi egiten dio bere momentua iristi arte zain egoten, bere unea iristen denean ez diolako hu-tsik egiten. Loczyko metodoak erakus-ten du zaintza momentuetan, heldua-rekin harreman pribilegiatua duelako, haurrak proban jartzen duela proban jartzeko duen guztia. Hau da, harre-man horretan nola dagoen eta nola aur-kitzen den. Egiteko modu horrekin, helduarengan aurrerantzean izango duen konfiantza sortzen da haurraren-gan, lehen esan bezala hutsik egiten ez diolako.

Txikiak, zaintzetako uneetan duen jarrera aktiboak eragin zuzena izango



# Piklerren metodo pedagogikoa

**“Helduak beti erakusten dio –urrun baina hurbil– ez duela, soilik, besoetan duenean aintzat hartzen. Baizik eta bere buruan daramala besoetan ez duenean ere. Horregatik, haurra, lasai egoten da. Badaki bere harreman egonkorreko pertsona hor dabilela; entzun egiten du, somatu...”**

du bere bizitzan. Eta era berean, harreman horretan benetako solaskide izan baldin bada, helduarengandik dator kion maitasunak eskaintzen dion ongizatea ere nabaritu du.

Haurrak gorputz zaintzetako intimitate uneetan (pixoihala aldatzean esaterako), erregulazio sentimendua bi espaziotan kokatzen duela esan daiteke: batetik, helduarekin, eta, bestetik, bere gorputzarekin. Besteak beste, helduak dena hitzetan azaltzen diolako gertatzen da hori, hau da, berea den

errealitatea hitzetan erakusten diolako.

Zaintzako une horiek ez dira edozein modutan amaitzen, Loczyn. Haurra eta heldua ez dira edozein modutan bata bestearengandik bereizten. Zaintza uneetan izandako bizipenetan haurrak bizitza osorako baliagarria izango zaion tresna garrantzitsu bat bereganatzen du: autoerregulaziorako estrategiak aurkitzeko gaitasuna, hain zuzen.

Loczyn loa eta atsedenerako denbora nola erabiltzen dituzten ere aipatzekoa da. Oheak edo sehaskak bi funtzio izan ditzake Loczyn. Batetik, lotarako erabiltzen da, noski. Eta bestetik, beraiantzat oso garrantzitsua da eguneko zenbait momentutan haurrak lotarako beharrik izan ez arren, guneko intimo horretan lasai egoteko denbora izatea. Bakoitzak bere sehaskatxoan segurtasuna ematen dion objektutxo bat izaten du; instituzioan bertan aurkitu duen zerbaitea eta haurarentzat esanahi bere-

zia duena. Hezitzaileek txikitatik erakusten diete une intimo hori dutela sehaskan egoteko, eta zenbaitetan ona dela beraiantzat. Haurra oinez ibiltzen hasten denean, hots, autonomiaz funtzionatzen duenean, bere kabuz erabakitzen du noiz joan daitekeen guneko horretara eta noiz irten nahi duen bertatik. Horretarako, baina, ohe edo sehaska bereziak dituzte, hots, albo batean bera bakarrik igotzeko eta jaisteko moduko atetxo bat dutenak.

## Mugimendu autonomo librea

Loczynko altxorra mugimendu autonomo librea da. Munduan ezaguna da Emmi Piklerren *Moverse en libertad* liburua eta lan horretan zehatz eta mehatzazaltzen du zein den egiteko modu horren funtsa. Piklerren hitzetan, mugimendu autonomo librean hazten den haurrak bere gorputzaren eta gaitasunen ezagutza osoa lortzen du, bere mu-





**“Metodologiaren oinarria hau da: haurraren autonomia errespetatzea, bere segurtasun fisikoa eta emozionala bermatuko dituen harreman egonkorra eskaintzea eta egunerokotasuneko errealitateak heziketan duen balioa aintzat hartzea.”**

gak ondo ezagutuz eta bere buruarengan konfiantza edukiaz.

Baina haurrak bere buruarengan konfiantza izan dezan, aurretik, berarekin dagoen hamarreman egonkorreko pertsonak bere gaitasunetan konfidantza duela erakutsi behar izan dio. Psikologikoki derrigorrez sentitu behar izan du hori.

Era berean, ulertu beharra dugu edozein ekintza motriz, ekintza mentalaren ekoizpena dela. Batak bestea dakarrela. Haurrak, mugimendu bat egiten ari denean, dituen sentimendu eta pertzepzioak ondorengo jarrera edo mugimendu bat indartzen dutelako gertatzen dira, beti. Hau da, burua prestatzen dute; behin eta berriz errepikatzen dute mugimendua, pixkanaka konfiantza hartzen dute... Horri esker indar berezi bat sortzen da ondorengo jarrerak eta mugimenduak garatzen joateko.

Mugitzea, azken batean, mundurantz bidea egitea da. Eta oso garrantzitsua da bide hori norberak egitea. Haurra, bide hori egiten ari denean, bere burua aurkitzen ari da. Nolako funtzionamendu autonomoa izan duen eza gutzen du pixkanaka, zer nolako estrategiak erabiliko dituen independentea izateko, sozializatzeko... Eta zalantzarik gabe bere buruarengan konfiantza lortzen joango da: “Ni hori egiteko gai naiz”, pentsatuko du. Baina nola ulertzen da mugimendu libre espontaneo? Haurrari berez egindako mugimenduan garatu dadin uzten.

Haurrak, bere kabuz, jarrera bat edo beste aurkitzeko mugimenduak egiten baditu, uneren batean bertikal-tasuna ere bere kabuz lortuko du. Helburua bere kabuz lortzeak sendotasuna eskaintzen dio. Eta bere gorputzarekin kofiantza duelako gustura, ondo

eta batez ere seguru sentitzen denean, gai izango da kanpotik edo mundutik datorkion bizitza fisiko guztia integratzen joateko.

Oso ohikoa da gurasoak parkeetako jostailuetan ikustea haurrak ‘behar-tzen’, eta nola egin behar duten azaltzen: “Orain hanka bat, orain apur bat goraxeago, ondo ondo segi horrela!” Haurrak, baina, arraro begiratzen dio, ez duelako ulertzen. Ez duelako bere gorputzean ez eta bere buruan integratu. Prozesuak aurreratzen saiatzen garenean horrelakoak gertatzen dira. Baina modu naturalean egiten direnean, haurrek konpetentzia maila garrantzitsua erakusten dute.

### **Ekintza autonomoa**

Haurrari, bere beharrak asetuta dituenean (logura, gosea...), gune berezi bat eskaintzen diote Loczyn, bere adinaren eta garapen mailaren arabera materialer hornitua. Baina helburua ez da haurra gune horretan utzi eta hezitzailea itzuli arte hor egotea. Ez! Ingu-ruan dagoen helduak, uneoro helarazi behar dio haurrari, bere aldamenean egon ez arren bere buruan dagoela. Helduak beti erakusten dio –urrun baina hurbil– ez duela, soilik, besoetan duenean aintzat hartzen. Baizik eta bere buruan daramala besoetan ez duenean ere. Horregatik, haurra, lasai egoten da. Badaki bere harreman egonkorreko pertsona hor dabilela; entzun egiten du, somatu. Ekintza autonomoko une horietan oso era naturalean egiten dute haurrek elkarrekin egoteko bidea. Batez ere lasai daudenean eta ezagutzen duten leku baten babes osoa sentitzen dutenean.

### **Amaitzeko, hainbat aipamen**

Loczyn garrantzia handia ematen

zaio eraikinetik kanpora irteerak egiteari. Astean bi edo hirutan kalera ateratzen dira taldetxotan. Kanpoko aldean bizitza handia egiten dute haurrek. Bai udan eta baita neguan ere, behar bezala jantzita.

Bestalde, gaur egun Loczyn eskaintzen duten Haur Eskolan txokoak eta material bereziak dituzte. Baina bada eraiki berria duten beste gune bat ere, guk, hemen, familia eta haurren gunea deitzen dioguna. Ludoteketarik kanpo dagoen gune bat da. Hau da, haur eskolara ez doazen haurrak, bere gurasoek hala nahi baldin badute, astean saio bat egitera joan daitezke. Hara joaten diren gurasoei gauza bakararra eskatzen diete, ez dezatela inolako esku-hartzerik izan. Haurrak zer egiten dakien, zein jarrerara dituen, zein mugimendu egiteko gai den, nola erregulatzen duen bere burua... horiek guztiak behatzera gonbidatzen dituzte. Gelako jarduna, Loczyko pedagogo batek zuzentzen du.

Oinarrian metodologia horretatik jaso nahi den ideia nagusia honakoa da: haur txikiak familietatik atera eta instituzioetan sartzen direnean, beraien garapenerako ezinbestekoak diren zenbait gauza kontutan izatea. Hau da, haurraren autonomia errespetatzea, bere segurtasun fisikoa eta emozionala bermatuko dituen harreman egonkorra eskaintzea eta egunerokotasuneko errealitateak heziketan duen balioa aintzat hartzea.

abel  
ariznabarreta

imanol  
igeregi

## *ELKARRIZKETA*

EHiko pedagogia alorreko arduraduna eta zuzendaria

“Curriculum propioa da Euskal Herriko edozein haurrek eskolaratze garaian barneratu beharrekoa”





*Imanol Igeregi*

*Abel Ariznabarreta*

# abel ariznabarreta imanol igeregi

E

“‘Hezkuntza’  
ereduan, ikastolak  
baditu berezitasunak,  
baina, batez ere,  
‘eskola’ eredu modura  
osatzen du ikastolak  
bere kontzeptu propioa.  
Gurasoen esku-hartzea,  
eta baita langileena ere,  
zentroaren titularitateari  
ere eutsiz; taldean  
jardutea; hezkuntza  
proiektu bati erantzuten  
dion ikas materiala  
sortu eta garatzea;  
Euskal Herriko  
erakunde funtzional  
instituzionalizatuan  
jardutea...

”

Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba elkarteak batu ditu Abel Ariznabarreta eta Imanol Igeregi. Dena den, nork bere ibilbidea du bizkar gainean.

Ariznabarreta EHU Euskal Herriko Unibertsitatean Historian lizentziaduna da, eta bertako irakasle da egun, Gasteizko irakasle eskolan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketako sailburuordea izan zen 2001etik 2005era eta Euskal Curriculuma zehazteko lanean aritu den taldeko kide ere izan zen. Egun, EHiko Pedagogia alorreko arduraduna da.

Igeregi hautatu dute kooperatibako zuzendari. Ikastoletako zuzendaritza eta kudeaketa lanetan eskarmentu handia du Igeregi, baita kooperatiben arloan ere. Hain zuzen ere, Partaideko zuzendaritza taldeko kidea eta Erkide Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioko koordinatzailea ere izan da.



**Antolaketa berria du Euskal Herriko Ikastolak (EHI) europar kooperatiba elkarteak. Zer aldatzen du antolaketa berri horrek?**

Hasteko, kokatu egingo dugu ekimen hau. Sortu berri dugun europar kooperatiba hau prozesu zabalago batean txertatuta dago. Hain zuzen ere, ondoko bi hauen artean dago kokatuta kooperatiba: *Ikastola 2020* proiektua, gure izaera eta curriculuma definitzen dituen, eta *2009-2014 bitarteko Plan Integrala*, nora eta nola joan nahi dugun finkatzen duena. Beraz, europar kooperatiba elkari lotuta doazen bi proiektu horietan aurreikusitako tresna da.

Kokapena egin ondoren, argi esan behar da kontzeptu aldaketa garrantzitsua dagoela egitura horren funtsean. Ikastola ereduarekin berarekin lotuta dago nagusiki. Eredu nazional berria koherenteagoa da ikastolek hezkuntza komunitateari buruz daukaten oinarriko kontzeptuarekin. Eredu kooperatiboa dute ikastolen titularrek, eta gurasoak kooperatiba horien bazkideak dira. Esan behar da gure artean kooperatiba integral batzuk ere badaudela, eta, horietan, gurasoak eta langileak direla bazkide. Baina, beti ere, bazkideak dira titularrak, zuzenean, bitartekaritarik gabe.

Eredu horri jarraituz, orain, erakunde nazional berria ere kooperatiba da, lehen aldiz, eta bazkideak dira zuzenez zuzenean titularrak, kasu honetan, ikastola bakoitzaren ordezkariak, lurraldeetako erakundeak (federazioak) bitartekaritarik gabe. Ikastoletan eta erakunde berrian bazkideen Batzar Nagusia da organo subiranoa. Lehengo

konfederazioa ere Euskal Herri mailakoa zen, oraingo bezala. Baina oraingo Batzar Nagusian zuzen-zuzenean daude ikastola guztiak eta ikastola bakoitzaren ordezkariak, Santurtzikoa (Bizkaia) zein Sohütakoa (Zuberoa).

Beste hitz batzuetan esanda, erakunde nazionalen ikastolaren eredu sozial eta demokratiko berbera hartu dugu. Demokrazia zuzena, lehen demokrazia ordezkaria zegoen lekuan.

### **Aldaketa honek eragin nabarmena izango du eguneroko funtzionamenduan?**

Noski. Organigrama asko errazten da, bai kanpotik jaso behar denean, eta bai ikastolek euren beharrak adierazi eta horiei erantzuteko orduan ere. Dispersiotik ez zentralismora baizik eta zentraliterara egiteko apustua egiten da, eta dispersiotik homogeneotasunera egitekoa, uniformismoan erori gabe.

Barrura begira, gure zerbitzuak antolatzeko garaian, Ikastolen Taldean erabakigune bakarra egongo da, ikastola guztientzako erreferentzia bat, gure artean leihatila bakarra deitu duguna, hots: egitura sinple eta eraginkorra. Kanpora begira, ahots eta ordezkariak bakarrik, gure egiteko eta ekimen guztietan.

Horrekin batera, erabaki nagusietan ikastolen partaidetza indartu eta nabarmendu nahi dugu.

Lehen bi erantzun hauen sintesigisa, hauxe esan dezakegu: Euskal Herriko ikastola guztiak bazkietza eta partaidetza zuzenaren bitartez (boto eskubidea barne) elkarte bakar batean biltzeak, batetik, eta, bestetik, ikastolei zuzendutako hezkuntza zerbitzuak euskal lurralde guztietako ikastolen artean eraikitzeak, bi gertakari horiek batera, ez dute aurrekaririk ikastolen mugimenduaren historian.

### **Eta horrek ez du talka egiten, Euskal Herriaren zatiketa administratiboa dela eta, bakoitzak bere eremuan landu beharreko estrategiek?**



Ez, baldintza horiek ezagutzen ditugulako eta tokian tokiko beharretara egokitzeko aurreikuspenak egin ditugulako. Zentzu horretan, Seaskak edo NIEk (Nafarroako Ikastolen Elkarteak), beraien administrazioaren aurrean jarduteko autonomia historikoa galdu gabe, organigrama orokorra erraztu izanaren abantaila guztiak izango dituzte.

### **EHLren egitasmoa garatzeko, zuzendaritza talde berria osatu duzue. Zeintzuk dira zuzendaritza berriaren erronka nagusiak?**

Ez da asmatzen zaila. Ebatzi berria den egituraren atal bakoitzari lehen garapen formala eta funtzionala ematea eta egonkortzea da hurrengo urratsa. Horrekin batera, eta hainbat agerralditan esan dugu jada, Curriculumak da ikastolek XXI. menderako aurreikusitako ekarpen nagusia, XX. mendekoak euskara eta euskal kultura hezkuntza sistemant sartu eta normalizatzea izan zen moduan. Hordaukagu erronka, eta horren arabera antolatu ditugu gure estrategia pedagogiko berriak, hainbat ataletan.

### **Zeintzuk dira atal horiek?**

Prestakuntza (profesionalena zein gurasoena), Ebaluazioa eta Kalitatea, Materialgintza, Aisialdia eta Eskolaz Kanpoko Jardunak, IKT, eta Hizkuntza Plangintza. Hori guztia, curriculum

proiektuekin lotuta eta horren arabera. Bada beste atal garrantzitsu bat, etxean Egonkortasuna deitzen duguna, finantzazioa, administrazioa eta antolakuntza biltzen dituenak. Horiek dira gure lan arloak.

### **Aipatu izan da ikastolek badutela berezko hezkuntza eredu. Hala bada, zeintzuk dira berezkitasun horren ezaugarriak?**

‘Hezkuntza’ ereduak, ikastolak badiu berezitasunak, baina, batez ere, ‘eskola’ eredu modura osatzen du ikastolak bere kontzeptu propioa. Gurasoen esku-hartzea, eta baita langileena ere, zentroaren titularitateari ere eutsiz; taldean jardutea; hezkuntza proiektu bati erantzuten dion ikas materiala sortu eta garatzea; Euskal Herriko erakunde funtzional instituzionalizatuan jardutea, administrazio eremuen gainetik hizkuntza eta kultura ezaugarrien arabera mugaz gaindiko politika gauzatu, Unescoen irizpideei jarraituta; ebaluazio kulturari dagokionez zein inspirazio pedagogikoari dagokionez, 80ko hogeikadako kalitate kudeaketaren ildoari jarraitzea, eta ez eredu bakar eta jakin bati. Horiek izango lirateke eskola eredu modura ikastolak izango lituzkeen ezaugarri berezi nagusiak.

### **Euskal Herriaren mapa 172 ikastolak osatzen omen zuten**

# abel ariznabarreta imanol igeregi



1979an.

**Gaur ere gauza bera esan daiteke?**

Gaur egun 101 dira ikastolak. Orduan zirenetako batzuk ez daude gaur egun, Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) publiko egin zirelako edo desagertu zirelako; baina orduan ez ziren batzuk daude gaur, batez ere, Iparraldean eta Nafarroan sortu direlako. Horrek ez du esan nahi EAEn ikastola berriak sortu ez direnik. Sortu dira, bai, ikastola berriak, eta badira hitzarmendun eskolen sarean zeuden eta ikastola bilakatu diren eskolak ere. Hala ere, azken hamarkadan, EAeko ikastola kopuruaren hazkundean garrantzi berezia izan du Lanbide Heziketatik etortzako ekarpenak. 2004/2005. ikasturtean, ikastolek iragarri zuten apustu berezia egingo zutela Lanbide Heziketaren alorrean. Geroztik, ikastolen mapan Lanbide Heziketa sartu da, oraingoz zehazki zazpi zentro, Bizkaian eta Gipuzkoan.

**Euskal Herrian euskararen estatus juridiko desberdinak egoteak eragiten al dio EHLri, hizkuntza proiektuak finkatzeko, eleaniztasuna lantzeko...?**

Bai, eragiten dio. Curriculumaren alorrean eta, ondorioz, materialgintzan gauzatzen da nagusiki gune administratibo batetik besterako desberdintasuna. Iparraldean, bereziki hizkuntza proiektuetan daude Hegoaldearekiko desberdintasunak. Horretan eta, noski, curriculum frantsesarekiko loturetan. Nafarroan, bestalde, ikastoletako materialean egokitzapenak egitera behartu ditu hizkuntza administrazioak. Hala ere, Seaskaren bidez kasu batean eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen bitar-

tez bestean, egokiro erantzuten zaie beharizan horiei. Baina, horren gaitetik, ikastola guztientzat baliagarria den Hizkuntza Plangintzak bi zutabe nagusi ditu: bata, eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta, eta bestea, hizkuntzen curriculum integratua. Ikastola bakoitzak hezkuntza eta curriculum proiektuan plangintza hori jasotzeko konpromisoa hartzen du, berorren kokapen administratiboa eta, horren arabera, inguru horretan euskarak duen estatus juridikoa dena delakoa izanik ere.

**Arlo pedagogikoan, oro har, ikasleen gaitasunak garatzea da planteatzen ari dena. Ildo horretan, zer egiten ari zarete?**

Ondo esan duzu. Egun hezkuntzan nagusitzen ari den ildo zera da: gaitasunetan oinarritutako curriculumaren diseinua, garapena eta ezarpena. Edukietan baino areago, ikasleak garatu beharreko gaitasunetan jartzen du arreta. Horrek sakoneko aldaketa bat dakar, edo ekarri behar du, ez horrenbeste edukien formulazioan, baina bai egiteko moduetan. Paradigma aldaketa bat dator, azken finean, gure hezkuntza sistematan benetako hobekuntza txertatu nahi badugu.

Gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, *jakitea* eta *egiten jakitea* baino zabalagoak dira ikas-kuntza edukiak. Egoera jakin batean erreakzionatzen eta erantzun egokiak antolatzen jakitea balioetsiko da. Eta horrek, ezinbestean, eskolan erabiltzen ditugun irakaskuntzako eta ikas-kuntzako prozesuei eragiten die; irakaskuntzaren paradigmari, hain zuzen. Orain arte, erronka horri erantzuteko prestakuntza egokirik ez du izan oro har irakasleriak, gureak ere ez. Curriculumaren diseinua osatzearekin batera, hortik hasi gara, ikasleak gaitasunen alorrean 'trebatzeko' hezitzaileen prestakuntza antolatzetik. Esan bezala, hori da XXI. mendeko pedagogiaren erronka nabarmena, hemen eta Europa guztian. Badakigu hori dela jardunbidea, baina denok daukagu zer ikasia, eta dena daukagu ikasteko alor horretan.

E

“Ikastola guztientzat baliagarria den Hizkuntza Plangintzak bi zutabe nagusi ditu: bata, eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta, eta bestea, hizkuntzen curriculum integratua. Ikastola bakoitzak hezkuntza eta curriculum proiektuan plangintza hori jasotzeko konpromisoa hartzen du, berorren kokapen administratiboa edozein delarik ere.”

## **Hezkuntza prozesuen hobekuntzan, irakasleen eta langileen prestakuntzak berebiziko garrantzia dauka. Nola antolatzen duzue hori guztia?**

Taldean berebiziko garrantzia ematen zaio etengabeko prestakuntzari eta, irizpide horren arabera, baliabide gehien eskaintzen zaizkion atala da prestakuntzarena, material propioaren atalarekin batera. Ikastolek eurek finkatzen dituzte batez ere prestakuntza beharizanak, eta horren arabera antolatzen ditugu saioak. Prestakuntzak lotura zuzena dauka, bestalde, I+G+B atalarekin. Azken honetan egiten ditugun urratsak materialgintzara eta prestakuntzara bideratzen ditugu. Prestakuntza, bestalde, ez da irakasleen esparrura mugatzen. Administrazioek, esate baterako, garrantzi handia daukate ikastolen funtzionamenduan, eta horiek ere beren ildoak daukate, kudeaketan etengabe trebatzeko. Gurasoen prestakuntzak ere bere tarteak dauka atal horretan.

## **Epe laburrean irakasle asko sistematik atera, eta berriak sartuko dira. Zein ondorio ekarriko ditu mugimendu horrek?**

Uste dugu bost urte barru, 2015ean, estualdi edo inbutuaren zulo estuaren eraginpean egongo garela Hegoaldeko hezkuntza sistema osoan, bereziki EAEkoan. Adin kontuak tartean, ikastoletatik zein beste sareetatik ere, irakasle ugari irtengo da erretiroa hartuta, eta, horien ordean, irakasle eskoletan ez da 'ekoitziko' haien hutsunea betetzeko irakasle berri nahikorik. Lehen erroka, beraz, irakasle berrien 'ekoizpena' izango da, edo zelan erakarri eta mantendu ikastoletan behar ditugun irakasleak. Imaginazioa, irudimena beharko dugu. Bestalde, Boloniako prozesuaren eragina ere kontuan hartu beharko dugu.

Argi dago belaunaldi aldaketa handia egongo dela. Ikastolen kasuan, sorreran edo sorreratik gertu ibili ziren andereño eta irakasleak desagertuz joango dira. Transmisioari arreta berezia ja-

rri behar diogu. Ikastola eskola eredu berezia da, lehen esan bezala. Garrantzitsua da ikastolara datorren profesionalak hori ondo barneratuta izatea; eskola eredu desberdin bat dela ulertu behar du, desberdintasun horretaz jabetuta, bertan ondo integratu dadin. Aparteko tutoretza beharko dute irakasle berri horiek. Ikastolak XX. mendean erdialdetik aurrera garatu ziren, 80ko hamarkadara arte, batez ere. Iragarritako belaunaldien arteko txandakitze hori XXI. mendean gertatuko da, sorreratik urrun. Esperientzia ondo transmititzen bada, operazio perfektua egingo da: esperientzia eta indar berrikuntza, biak batera. Baina, horretarako, transmisioa ondo egin behar da.

Transmisio horretan egungo eta datozen urteetako zuzendariak, zuzendaritza taldeek, zeregin edo egiteko berezia izango dute, ikastolen izaerari eusteko eta transmisioa bermatzeko; bereziki, zuzendaritzak prestatu eta gaitzeko taldeak ahalegin berezia egin beharko du.

Elementu hauek guztiak bilduz, proiektu bat abian jarri nahi dugu, eta helburu horiek gauzatzeko ezinbesteko aliatuak aurkitzen saiatuko gara.

## **Hainbat hezkuntza-eragilerekin adostu zenuten Euskal Curriculumaren gaineko akordioa. Nola ari da garatzen?**

Hezkuntza sareetako berrogeita hamar talde inguruk parte hartu zuten Curriculumaren inguruko akordioan, eta akordio horri beren egiteko konpromisoa hartu zuten. Hortik aurrera, ikastolok curriculum hori garatzen ari gara, gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, nahitaezko eskolaldiko etapa eta arlo guztientzako esparru komunean oinarrituta. Eginkizun horretan, ezinbesteko erreferentek bilakatzen ari dira, alde batetik, adostutako Euskal Curriculuma bera eta, bestetik, ikas materialgintzaren arloan orain arte ondo egindako lanaren eskarmentua eta ekoizpena, eta baita gune administratibo bakoitzeko curriculum ofiziala ere. Hezkuntzaren plan-



teamendu berriak eskatzen dituen aldaketak gauzatzera eta horretarako pedagogia egokia txertatzera eramango gaitu horrek guztiak.

## **Euskal Herria terminoaren afera, irakasleak doktrinatzeari buruzko adierazpenak, curriculum ofizialak... Horiek guztiek ez al dute EHLren materialgintza gehiegi baldintzatuko?**

Nafarroan baldintza dezake, hango gobernua oso zorrotz jartzen ari delako materialen edukiaren kontrolean, batez ere, materialoi finantzazio publikoa ematerakoan. Besteetan, ez. Guk ez diegu uko egingo gure sorrerakoak diren oinarriari. Beti aurkitu izan dugu zirrikitua geureari eusteko, eta horrela izango da aurrerantzean ere. Ikastoletan, daukagun eskola autonomiaren arabera, badugu geureari eusterik. Ikastolen heziketa proiektuaren oinarria da bertan ekoizten den ikas materiala, eta hezkuntza sisteman egin dugun benetako apustu eraldatzailearen isla da, azken finean. Bestalde, sortzen eta lantzen ditugun materialak zabalitzen dira beste eskola sareetara ere.

# abel ariznabarreta imanol igeregi

E

“  
**Ikastolen sorreran edo sorreratik gertu ibili ziren andereño eta irakasleak desagertuz joango dira. Transmisioari arreta berezia jarri behar diogu. Garrantzitsua da ikastolara datorren profesionalak ikastola eskola eredu berezia dela ondo barneratuta izatea; eskola eredu desberdin bat dela ulertu behar du, desberdintasun horretaz jabetuta, bertan ondo integratuta dadin.**”

Horietan, erabaki egin beharko dute guk ekoiztutako eta merkaturatutako materialak erabiliko dituzten ala ez.

**Ikerketen arabera, gurasoen parte-hartzeak eragin handia dauka hezkuntza prozesuen hobekuntzan, bizikidetzan, emaitza akademikoetan ... Nola ikusten duzue hori?**

Ikastoletara jotzen duten gurasoak eta beste eskoletara joaten direnak gizarte berekoak dira, noski. Beste eskoletako gurasoek bezalako bertuteak zein gabeziak dituzte. Unean uneko gizarte joera nagusiei erantzuten diete. Haurren ikasketa eta hezkuntza prozesuetan inplikatzeari dagokionez ere horrela da. Baina, historikoki eta gaur egun ere, ikastoletara doazen gurasoek ikastolan inplikatzeko joera handiagoa daukate. Pentsa, zentroaren titularitatearen erantzukizunari heltzen diote zuzen-zuzenean. Eta ikastolan inplikatzearekin batera, bakoitza bere seme-alaben hezkuntza prozesuan bustitzea dator. Horrek gauzak erraztu egiten ditu, baina, hala ere, lan handia egin behar da inplikazio hori gauza dadin. Duela 30 urte, inplikazioa handiagoa zen. Gaur egun, ez da horrela. Eta hor sartzen da guraso eskolen eragina, edo

orientatzaileen eragina. Egunez egun, gurasoekiko harremanean sakontzeko estrategiak lantzen dira ikastola bakoitzean, hara doazen gurasoen ezaugarrien arabera, inguru sozialaren ezaugarrien arabera. Dena den, bide berriak bilatzen ari gara, eta gustura hartuko genituzke ekarpenak, egungo gizartearen isla diren gurasoei egokitutako inplikazio estrategiak.

**EHLrentzat ikasleak zer dira, objektu, subjektu ala merkatuko balio?**

Gaur egun, guretzat zein pedagogiko joera nagusientzat, ikasleak, pertsona izanik, batez ere subjektu dira, hezkuntza prozesuaren subjektu aktiboak dira, objektu hartzaileak izatera mugatu gabe. Besterik da zerbitzu pedagogikoak antolatzeke orduan ikasleak zein familiak objektu ere bihurtzea. Merkatua, azkenik, pedagogiaren filmeko gaiztoa da, karikatura erabili ahal bada. Eta ez dakigu hau nola hartuko den, zeren melodia honek pedagogoen tinpanoa urratu egiten baitu, baina esan beharra dagoela uste dugu: egiaren izenean, aitor dezagun hezkuntza prozesua, batez ere azken fasean, ezin dela garatu merkatua kontuan hartu gabe. Merkatuaren intereserako?



Ez. Batez ere hezkuntzaren subjektuaren beraren, ikaslearen, intereserako. Merkatua kontuan hartu gabe jardutea, gizarteari bizkarra emanda jardutea litzateke, eta baita ikaslearen interesei bizkarra emanda jardutea ere.

### **Oro har, nola ikusten du EHLK hezkuntza antolaketa?**

Hasteko, iruditzen zaigu Espainiako Erreinuaren eta Frantziako Errepublikaren arabera antolatuta dagoela, eta ez euskal gizartearen ezaugarrien zein interesen arabera. Hego Euskal Herrian indarrean diren bi autonomiak, Gasteiztik zein Iruñetik kudeatutakoak, ez dira behar bezala garatu Hezkuntzaren alorrean. Ez dira aprobetxatu dituzten eskumenak sistemaren beste egitura eredu bat bultzatzeko edo, Europar txertatuta, hezkuntzaz beren kontzepzioa garatzeko. Iparraldean, jakobinismo frantsesak ez du inolako zirrikiturik uzten, beste garapen arlo guztietan bezala, euskal gizartearen neurrira egokitutako ibilbide propiorik egiteko. Une honetan, munduko hezkuntza eredu arrakastatsuek bereziki bi ezaugarri hauek dituzte: autonomia eman ikastetxeei, eta erantzukizuna (“accountability” sistema) eskatu, haien egitekoaren ebaluazioa gauzatuz. Eredu horietatik oso urrun gaudete. Hegoaldean deszentralizatu beste biderik ez zuten ereduetan, ‘bertako zentralismoa’ txertatu dute; mimetismoz, Estatuako Administrazio Nagusiaren joera ‘arautzaile’ historikoa errepikatu dute, besterik gabe, bertako gizartearen eta eskola komunitatearen ezaugarrietara egokitu gabe.

### **Hezkuntza sistemaren egitura aldatzea proposatzen duzue?**

Gure aspaldiko borroka da, sistemaren antolaketari dagokionez, sareen banaketa historikoa gainditu beharra. Guk beti esan dugu hezkuntza, gizartean, eskubide unibertsala dela kontuan hartuta bermatu behar duela Estatuak. Baina eskubide hori bermatzeko, orain eta hemen, ez ditu soilik titularitate publikoko zentroak. Badira estatuaren

planifikazioan inplikatzeko prest diren zentroak, titularitate publikokoak izan gabe. Beste hitz batzuetan esateko, sareak ezin dira bereizi titularitatearen arabera, gizarteari ematen dioten zerbitzuaren arabera baizik. Eta zerbitzu hori bera interes publikokoa den edo ez erabakitzeko, ezaugarri objektiboen arabera ebaluatu beharko litzatekeela uste dugu. Ikuspuntu horren arabera, hezkuntza sistema nahi genuke, egituratzeari dagokionez. Gauregun indarrean dagoen egitura higitutako oinarrien gainean eraikita dago. Alde batetik, gaur egungo hemengo klase sozialek XX. mendearen erdialdeko klaseen ezaugarri berdintsuak dituzte, baina badituzte desberdintasun nabarmenak ere. Beste alde batetik, Estatu orotuteltzaileak gurea bezalako gizarte emantzipatuari lekua utzi beharko lioke.

### **Krisi ekonomikoa dela eta, eragin handia izango al dute aurrekontu berriek ikastoletan?**

Krisiak izango du eragina aurrekontuetan, bai, kontatzen dugu horrekin. Baina krisiarekin batera beste faktore batzuek ere agian eragina izan dezakete, ikusteko dago. Gasteizko Administrazioan alderdi bakarra dago agintean, ikuspegi zehatza dauka hezkuntza sistemari buruz, eta estatu hedadurako alderdia da. Hau ez da inoiz gertatu autonomi estatutua indarrean dagoenetik. Azken urteetan, ikastolek aurrerapausoak lortu dituzte finantzazio publikoan, poliki bada ere. Aurrerapauso horiek geldituko ote diren edo agian atzera ere egin dezaketen, ala motelago izanda ere aurrerapidean jarraituko duten, hori jakitean dago koska..

### **Proiektu sozialetan epeak jarri ohi dira helburuak finkatzeko. 2020rako, zein dira zuen helburuak?**

Curriculum propioa da, Euskal Herriko edozein haurrek eskolaratze garaian barneratu beharrekoa, une honetako eta etorkizun hurbileko gure helburu eta erronka nagusia. Curriculum



propioa, ez bakarrik ikastoletarako. Hezkuntza eremu zabalari eta, oro har, euskal gizarteari egin nahi diogun ekarpena da. Eta curriculum propioarekin batera, aldaketa sakona dator hezkuntzaren alorrera, arestian aipatu bezala, gaitasunen lanketan oinarritutakoa izan behar badu. Irakaslerian, belaualdi txandaketa ere badator, eta horrek transmisio egokiaren erronka jarri digu mahai gainean. Baina, curriculumarekin batera, ikastolen beste erronka nagusia aitorpena da, hezkuntza sistemaren egituraren barruan eskola eredu propiotzat aitortua izatea. Curriculum propioa eta aitorpena, beraz, helburu nagusiak.

## Cos Art metodoa ezagutzen

**Andoaingo Udala eta Musika Eskola, musika instrumentuen irakaskuntzaren ikuspegi guztiz berritzailea duen Cos Art metodo pedagogikoa bultzatzen ari dira. Bi ikastaro antolatu dituzte: 2009ko azaroan lehena eta orain, martxoan, bigarrena. Metodo horren arabera, pertsona da bere gorputzarekin batera musika egiten duena, eta instrumentua, aldiz, hori gauzatzeko bidea. Instrumentuaren teknika, antza, ez da instrumentua hartzen denean hasten. Instrumentuaren teknika alde aurretik eta jakitun egin behar den gorputzaren entrenamendutik hasten da.**

Eguneroko bizitzan eta baita musika instrumentu baten interpretazioan ere, oso garrantzitsua da jarrera eta postura egokiak edukitzea. Gorrotxategik azaldu duenez, horretarako metodo pedagogiko artistikoa da Cos Art metodoa. Pedagogikoa zergatik? Irakasle batek, gorputz hezkuntzako eskolen bitartez transmititzen duelako. Eta artistikoa? Azken batean, metodoaren helburua hobeto adieraztea delako.

Cos Art metodo honen sortzailea Yiya Diaz piano jotzaile eta musika pedagogoa da. Diaz argentinarra da, eta Buenos Airesen egin zituen piano ikasketak, Fedora Aberastury piano jotzaile eta pedagogoarekin. Eta Aberasturyk



Elena GORROTXATEGI

berak sortutako mugimendurako sistema kontzientea ikasteko aukera ere izan zuen. Urteak pasatuta, Yiya Diaz Kataluniara joan zen eta ordura arte ikasitako guztien sintesia egin zuen. Horrela sortu zen Cos Art metodoa. Gorputza eta artea uztartzen dituena.

### Adierazpena hobetu

Aipatu dugunez, metodo honen helburu nagusia adierazpena hobetzen ikastea da. Zer da, baina, hobeto adieraztea? Andoaingo Musika Eskolako flauta irakaslearen arabera, bai Diazek eta baita Aberasturyk ere, piano jotzaile eta artista gisa, pianoa jotzerakoan askatasun handiagoa lortzea zuten helburu. Hori dela eta, gorputza entrenatzeari ekin zioten, une jakinetan –kontzertu batean, azterketa batean...– ahalik eta modu onenean erantzun ahal izateko. Metodoaren helburueta-ko bat pentsamenduaren, emozioen eta mugimenduaren arteko batasuna

lortzea da. Elementu horiek guztiek batera erantzutea, traba psikofisikorik gabe. Horretarako, beharrezkoa da gorputzarekin harremanetan jartzea, kontziente izanik. Hau da, modu kontzientean. Gure arreta eta kontzientzia hainbat gorputz atalera bideratzen baditugu, gorputzak berak erantzun bat sorrazten du. Azken batean, pentsamenduak gorputzarengan duen eraginean oinarritzen da Cos Art metodoa.

Esate baterako, gure burua arriskuan ikusten dugunean, berehala, gure gorputza ihes egiteko edo borrokarako prestatzen da. Era berean, azterketa batean musika instrumentu bat jo behar dugunean edo kontzertu bat eman behar dugunean, nahiz eta fisikoki arriskuan ez egon, psikologikoki arriskuan ikusten dugu geure burua, geure egoa. Gorputzak arrisku horren arabera erantzuten du une horretan; uzkuritu egiten gara, tentsioan jarri, ahoa lehortzen zaigu, eta horrek guztiak ez digu behar bezala adierazten uzten, ez digu adierazkorrak izaten laguntzen. Musika egiteko, ikusleak hunkitzeko, gorputz eta arima aritu beharra dago, gure sentimenduak bideratu eta transmititu behar ditugu, eta, horretarako, gure gorputza prestatu, entrenatu egin behar dugu.

### Irakaslea bidelagun

Entrenamendu horretarako, ezinbestekoa da arropa eroso izatea, eta galtzerdi lodiak jartzen dira, oinutsik lan egiten delako. Lastaira bat, manta edo zapi bat eta kitto, ez da gehiago behar. Hasieran, beti, kokapena egiten da. Kokapen horren helburua gure ba-



rualdearekin harremanetan jartzea da. Barrualde hori izango da jarraian landuko diren eduki berriak barneratu ahal izateko oinarritzko abiapuntua.

Hasierako kokapena edo ezarpena egiteko, lehenik eta behin, ikasleak buruz gora etzaten dira eta Cos Arteko irakasleak hainbat azalpen ematen dizkie, eskuekin laguntzen dien bitartean. Ikasleen arreta hainbat gorputz ataletara bideratzen du, eta atal horietaz jabetu daitezten, ukimenaren bidez puntu zehatzak azaltzen dizkie. Esaterako, burua lantzen denean, oinarritzko puntuak dira masaileko giltzadurak eta buru atzean dagoen giltzadura atlentokzipitala. Bi giltzadura horiek itxita egoten dira normalean, tentsioan egoten dira, eta horiek askatzea izaten da kokapenaren xedeetako bat. Irakasleak giltzadura horiek ukituko ditu, ikasleak ezagutu ditzan.

### Jendearen erantzuna

Horrelako ikastaroren batean parte hartu duen jendea, normalean, oso gustura egoten da. Egindako lanak gure barne erritmoarekin jartzen gaitu harremanetan, eguneroko erritmo bizkor eta zorrotzetik aldenduz. Ikasleek, azken batean, beren denbora berreskuratzen dute, eta, horregatik, sentipen onak izaten dituzte. Bestalde, eskolara etorritakoan baino lasaiago eta bareago ikusten dute euren burua. Zenbaitetan, lehendik zituzten minak ere joan egiten zaizkie.

### Hainbat esparrutan

Hasiera batean musikan soilik erabiltzen bazen ere, geroago beste esparru artistikoetara ere zabaldu da Cos Art metodoa: dantzara edo antzerkiera, adibidez. Mallorcako (Herrialde Katalanak) kontserbatorioko Mona Belizan irakasleak dantza klasikoko presta-



kuntza izan zuen, eta, gerora, Cos Art metodoko irakasle egin zen.

Era berean, emakumeekin lan egin duten Cos Art metodoko aditu asko dago. Izan ere, metodo horrek, norberaren gorputza ezagutzen, onartzen eta balioesten irakasten du. Hori musikarientzat oso lagungarria izan daiteke, gure gorputzaren mugak eta indarrak erakusten dizkigulako. Baina, era berean, Gorrotxategik dio onuragarria dela beste edozein pertsonarentzat ere.

### Metodoaren sortzailea, Donostian

Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen irakasleen prestakuntzarako Garatu ikastaroen bidez ezagutu zuen Yiyi Diaz argentinarren metodoa Gorrotxategik. Baita Diaz bera ere. Hain zuzen ere, Hondarribiko (Gipuzkoa) musika eskolak ekarri zuen Diaz Donostia-ra. Musikarekin lotura duen gorputzaren lanak erakarrira eman zuen izena Gorrotxategik: "Asko gustatu zitzaidan, une horretan bilatzen ari nintzenarekin bat etorri zelako. Ikuspegi humanista iruditu zitzaidan, pertsona goitik behera errespetatzen duelako eta musikalki aplikagarria iruditu zitzaidalako". Esperientzia garrantzitsua izan zen Gorrotxategirentzat, eta urte batzuk geroago Bartzelonan (Herrialde Katalanak) egin ziren espezialistentzako prestakuntza ikastaroetan eman zuen izena. Prestakuntza ikastaro haietan, musikariak eta abeslariak ez ezik, dantzariak, psikologoak, gizarte-hezitzaileak, komunikazioko profesional bat... bildu ziren.



### Gorputzarekin harremanetan jartzea

Gorrotxategiren ustez, metodo honek egin dion ekarpenik garrantzitsuenak gorputzarekin harremanetan jartzea izan da. Gorputzak berak bere espazio eta indar propioa ditu, pentsamendutik at. Gorputza bizitzen ikastea, bakoitzaren egoitza bilakatzea eta sentimenduak bideratzeko modua ezagutzea da. Horrek guztiak plazer eta ziurtasun handia ematen diola azaldu du flauta irakasleak. Bestalde, bere osasunaren gaineko arduraren hartzen ere lagundu diola nabarmendu du. Lehen, ikasketa orduak zirela eta, masajistarenera joan behar izaten zuen mina eta ondoeza kentzeko. Orain, ordea, Cos Art metodoarekin bere burua osasuntsu mantentzea lortzen du.

### Proiektu berriak

Orain arte, Andoainean egindako ikastaroen helburua metodoa ezagutzaraztea izan da, eta orain, datorren ikasturterako Cos Art metodoko talde iraunkor bat sortzeko asmoa dute. Bestalde, Maria Vega piano jotzaile bilbotarrarekin hainbat proiektu prestatzen ari dira. Vegak, Zaragozako (Aragoi) goi mailako kontserbatorioan lan egiten du, eta Bartzelonan egin zuen, Gorrotxategirekin batera, Cos Art metodoko prestakuntza. Besteak beste, dituzten proiektuen artean, erdi eta goi mailako kontserbatorioetako ikasleekin ikastaro trinkoak egitea dago. Era berean, abesbatza eta orkestrekin lan egitea ere gustatuko litzaieke.

## Labirintoaren erbestean Ametsetako bidaia

**Galtzagorri elkartearen Labirintoaren erbestean areto literarioa Hernanin eta Zumarragan (Gipuzkoa) izan zen urte hasieran. Literatura aitazakiatzat hartuta, eta labirinto batek eskaintzen duen zirrarari esker, bidaia imaginarioa egin ahal izan zuten hurbildu ziren haurrek. Beti ere, Miren Gonzalez dinamizatzailearen laguntzaz.**

Bi sarrera eta bi irteera ditu, eta bidean, makina bat ezusteko. Labirinto bat da. Harrigarria, beldurgarria, polita, lasaia, argia, iluna... Bidaia jostagarri bat egiteko leku aproposa. Horixe da, hain zuzen, Galtzagorri Elkartearen Labirintoaren erbestean jolas literarioak proposatzen duena, irudimena erabiliz bidaia bat egitea. Hernaniko (Gipuzkoa) udaletxeko aretoan egin zuten urtarilean labirintoaren muntaia, eta, herriko ikastetxeetatik ez ezik, inguruko herrietatik ere hurbildu ziren 8 urtetik 10era bitarteko haurrak. Miren Gonzalez margolariaren laguntza izan zuten munduko txoko batetik bestera jauzi egiteko. Hik Hasik ere izan zuen labirintoan galtzeko aukera, Hernaniko Elizatxo ikastolako haurrekin batera.

### Hiri liluragarriak

Udaletxeko aretora ailegatu, eta Miren Gonzalezek ongi etorria egin zien



Elizatxo Ikastolako gaztetxoei. Aztoratuta zeuden denak, urduri. Bazekiten labirinto batean sartu behar zutela. Ez zekiten, baina, zer aurkituko zuten labirinto barruan. Ispiluak, uharteak, ura, sua, beroa, ekaitza, argia, iluna... guztiak batzen dira bidezidorrez betetako leku itxi horretan. Labirintoan, lehendabiziko sartu-irtena Gonzalezekin batera egin zuten, eta berehala entzun ziren lehendabiziko harridurazko deia-darrak. Horrela ailegatu ziren bidaiaren erdira; eta han, ametsetako mundu batekin egin zuten topo. Hiri bereziak, etxeorraz luzeak, arrainak hegan, erleak, zubiak, txabola txikiz osatutako herrixka bat... "Haiti izango da!", egin zuten oihu gaztetxo batek. Izan ere, aste horretan bertan jazo zen lurrikara. "Ez, ez da Haiti. Brasilgo 'favela'-k dira. Eza-

gutzen dituzue?", erantzun zien Gonzalezek.

Beste sarrera batetik egin zuten bidearen beste erdia. Hasierako lekura itzuli ziren denak elkarrekin. Berehala, baina, taldeetan banatu, eta euren kasa egin behar izan zuten bidaia. Gonzalezek ohar garrantzitsu bat egin zien abentura hasi aurretik: "Lau altxor daude labirintoaren barruan. Taldeka joango zarete altxor batetik bestera, eta han nola sentitzen zareten pentsatu behar duzue, ados?".

### Jokoaren gidioa

Gonzalezek mapa bana eman zien ikasleei. Mapa horren laguntzaz ibili ziren labirinto barruan. Bidaia horretan, hainbat mundu ikusi eta sentitu zituzten. Baina, era berean, atsedeneleku ba-

tzuk ere bazeuden, eta horietan zeuden gordeta altxorrak. Literaturarekin eta musikarekin lotutako altxorrak. Izan ere, atsedengune horietan liburuak ikusteko eta diskoak entzuteko aukera izan zuten Elizatzoko ikasleek. Musikak, liburuek, irudiek, atsedenekuko egoerak... Horiek guztiak zein sentimendu pizten zizkieten pentsatu behar zuten.

### Asaldagarria, harrigarria, beldurgarria, desberdina

Sarritan zaila izaten da sentimenduak azalatzeko. Labirinto horretan, ordea, jolasera hurbiltzen diren haurrek laguntza izango dute horretarako. Hain zuzen ere, koloretako gomexak aurkituko dituzte atsedenean leku bakoitzean. Kolore bakoitzak esanahi bat izango du: asaldagarria, harrigarria, beldurgarria edo desberdina. Kolore bat aukeratu, eta hasieran emandako mapa horretan itsatsi beharko dute haientzat egokiena dena.

Itzuli osoa egin ostean, hau da, talde guztiak lau altxorrak bisitatu eta atsedenean hartu ostean, ametsetak munduan elkartu ziren Elizatzoko ikasleak eta Gonzalez. Sentimenduei buruz hitz egin zuten lehendabizi. Labirinto barruan garrasi bat edo beste entzun bazen ere, inork ez zuen beldurgarria adjektiboari zegokion gomexa itsatsi mapan. Harrigarriak iruditu zitzaizkien gehieni labirintoko txokoak.

### Ipuin kontalariak

Abentura txiki horren helburuetako bat ikasleek beste mundu batzuk ezagutu eta sentitzea zen. Baina baita, eraberean, literaturaz modu ludiko batean gozatu eta zaletasuna –apur bat bada ere– bultzatzea ere. Hori dela eta,



Gonzalezek ipuin edo narrazio berezi batekin amaitu zuen bidaia. Berak hasiera baino ez zien eman ikasleei, eta haiek, labirintoan ikusi eta bizitakoarekin edota euren irudimena erabilia osatu zuten istorioa.


Elizatzoko ikasleek bezala, Euskal Herriko ikastetxe askotako gaztetxoek ere ez dute sormen arazorik, irudimena dute barra-barra. Lantzea da gakoa. Eta Galtzagorri elkartearen Labirintoaren erbestean jolas literarioa izan daiteke horretarako parada.



### LABIRINTOAREN ERBESTEAN



### BIDE GALDUAREN BILA



## Egia al da irudiaren gaur egungo indarrak irakurketaren praktika kolektiboa kaltetu duela



*HIK HASI aldizkariaren ardura-dunek irakurketari buruzko hausnarketa bat egiteko gonbita egin didate. Gai zebatz honen inguruan: "Egia al da irudiaren gaur egungo nonabikotasunak irakurketaren praktika kolektiboa kaltetu duela?" Edo, beste modu batean galdetuta: benetan murriztu da irakurleen kopurua, bereziki irudian oinarritzen diren teknologia berrien zabalkundearen ondorioz? Jakin badakit oso zaila dela artikulu laburbatean horrelako gai konplexu bati heltzea. Baina, dena den, ez diot desafioari ibes egingo, eta abalik eta modu argienean erantzuten saiatuko naiz.*

Lehenik, galderak berak erreparoa sortzen didala esan nahi nuke, zoritxarrez, oinarri handiegirik gabe, oraino indarrean dagoen aurreiritzi bat berregiten duelako. Gurera lehenik zinema, ondoren telebista eta bideoa, eta, azkenik, ordenagailuak eta Internet ailegatu zirenetik irakurketak nabarmen behera egin duela ziurtatzen dute askok. Hasteko, ustezko porrot hori dela eta, atsekabetuta dauden horiek ez dira ira-



**Juan MATA**  
GRANADAKO UNIBERTSITATEA

kurleak, aurretik ere ez dira hala izan, eta ez dute uste irakurtzea ezinbestekoa denik. Beraz, horien guztien kexek indarra galtzen dute. Gogoz egingo nizkieke galdera batzuk hain nahigabetuta dauden herritar horiei (irakasle asko daude horien artean): zergatik deitoratzen dute ustezko galera hori? Dagoeneko desagertu den zein ezaguri ordezkaz ezin zuen irakurketak, horien ustez? Behin eta berriz salatzen duten gainbehera horren atzean, zein zoritxarreko ondorio antzematen di-

tuzte? Ziurrenik, kasu gehienetan, isiltasun deseroso bat etorriko litzateke galderaren ostean. Izan ere, frogatuta daukat irakurketaren inguruko zorigaiztoko baieztapen askoren atzean oso hausnarketa gutxi dagoela.

Era berean, esan beharra daukat aurreiritzi horren gainean badela beste bat, are handiagoa: haurrak eta gazteak dira hondamendi horren biktima nagusiak. Esplizituki esaten ez den arren, haiengan pentsatzen dugu ikus-entzuzko bitartekoen indarraren aurrean irakurketak atzera egin duela esaten dugunean. Baina zergatik ez dugu sekula gai hori helduen inguruan planteatzen, horiei ere badagokienez? Bada, gutxi axola zaigulako irakurleak izan daitezkeen heldu horiek euren denbora irakurtzen pasatu beharrean telebistaren aurrean pasatzea (horixe da benetan pentsatzen dena irudiaren nagusitasunaz hitz egiten denean). Aitzitik, haur eta gazteek gauza bera egiteak (horien kasuan telebista esan beharrean bideo-jokoak edo Tuenti sare soziala aipa ditzakegu) hamaika aiene eta seinale tamalgarri sortzen ditu. Badirudi helduen kasuan aisialdia dena, haur

eta gazteen kasuan, degradazioztat hartzen dela. Uste dut, gazteen eta liburuaren inguruko arrazoirik gabeko alarma sentimendu horiek gehiago daudela kezka moralei lotuta, argudio intelektualei baino. Egia esan, irakurketaren inguruko eztabaidak ez daude gizartearen aurreiritzi, topiko eta kezketatik urrun. Zehaztasuna eta arrazoiketa, sarritan, zehaztasun ezarekin eta irizki hutsalekin gurutzatzen dira. Eta horrek guztiak zaildu egiten du horren konplexua den kultur praktikaren ulermen zentzuduna.

## Lehen baino gutxiago

Irakurketaren gainbehera geldiezin salatzen dugunean, inplizituki aldigoren bat izan zuela baieztatzen ari gara, eta une hartatik aurrera hasi zela irakurle kopurua jaisten. Beherakada hori esaldi honek laburtzen du: "Orain, lehen baino gutxiago irakurtzen da". Taxi gidari, irakasle, kazetari edo liburu-saltzaile, jende askoren ahotan dabilen esaldia da. Baita sekula liburu bat irakurri ez duenaren ahotan ere. Baina zehazta da baieztape hori? Errealitate objektiboki dagokio, ala iraganaren idealizazio soil bati? Berrikuntzak eta aurretik jakin ezin daitekeenak sortzen dituzten zalantzen ondorioa al da?

Zailena erabateko ziurtasunez aipatzen den irakurketa oparoko garai hura zehaztea da. Noiz kokatu behar dugu 'lehen' hori? Orain dela hamabost urte? Hogeita hamar? Espainiako demokraziaren hasieran? Frankismoan? Gerraostean? Bigarren Errepublikako bost urteetan? XX. mendeko lehendabiziko urteetan? Ez dirudi erraza 'lehen' hori kokatzea. Izan ere, une batez ohar-kabetu, eta berehala eraso egiten digute datuek: pasatu den mendean Espainian izandako analfabetismo tasa gaitzesgarriak, eskolatzeko kopuru ikaragarri txikiak, liburutegi publikoen gabeziak, liburuaren argitaraldi eskasak... Ez dirudi, buru inuzente edo nostalgikoei izan ezik, XX. mendeko espainiar estatuko historiak, oro har, kulturari eta be-

reziki irakurketari mesede egin dionik. Nik, behintzat, ez dut oroitzen nire haurtzaroan eta gazte garaian (XX. mendearen bigarren erdiaren zati handi bat hartzen du garai horrek) irakurketaren goratze aldirik. Eta, beraz, ezin dut esan ordutik hona etengabeko beherakada izan denik. Memoriak edo sen onak nahikoa izan behar luke irakurketaren iragan distiratsua galararen topikoa behin betiko zokoratze-ko.


Baina bada argudio sendoago bat: estatistikak. Gure arreta zenbakietan jartzeak giza esperientzia kontu kuantitatibo eta uniforme bihurtzeko arriskua dakarren arren, irakurtzeko ohiturei buruzko inkestek orientabideak eman diezazkigukete. Irakurketaren esperientzia ezin da epaitu, soilik ezer ere ez, asko edo gutxi irakurtzen den esanez. Hori baino konplexuagoa da. Irakurketaren maiztasunarekin eta kopuruarekin baino gehiago, moduarekin, intentzioarekin edo irakurketaren ondorio kognitibo eta emozionalekin du zerikusia. Sarritan irakurtzen duen norbaitek denboraldi batez alboratu dezake ohitura hori lanagatik, edo gogaldartearen arabera, eta, ondoren, berriro irakurtzera itzul daiteke. Edo liburuak noizean behin soilik irakur ditza-ke, baina horrek eragin bizia izatea lor-

**Gurera lehenik zinema, ondoren telebista eta bideoa, eta, azkenik, ordenagailuak eta Internet ailegatu zirenetik irakurketak nabarmen behera egin duela ziurtatzen dute askok. Zorigaitzoko baieztapen askoren atzean oso hausnarketa gutxi dago.**



dezake. Horrelako datuak ez dira inkestetan islatzen. Une jakin bateko kultur praktika zehatz baten errefusatzeko edo erabilera datuak agertzen dituzte. Hala ere, metodologiaren arteko ezberdintasunak, analisi motak edo ondoz ondoko inkestek zehazgabetasun terminologikoak gorabehera, faltsua da ematen dizkiguten datuen arabera hazitzen den beherakada hori. Edo hobeto esanda, datuek diote ez dela orokorra; eta ustezko beherakada horrek ez diela eragiten helduen beldur eta mardikazioak jasaten dituzten haur eta gazteei. Ikus dezagun, adibide moduan, liburuaren irakurketaren inguruko datuek nolako garapena izan duten azken hamarkadan<sup>1</sup>.

## Liburu irakurketaren maiztasuna 2000-2008 urteak



<sup>1</sup> *Hábitos de lectura y compra en España*. Madril: Federacion de Gremios de Editores de España. <http://www.federacioneditores.org/SectorEdit/Documentos.asp>

**Beherakada hori irrika handienaz honako esaldi honek laburtzen du: "Orain, lehen baino gutxiago irakurtzen da". Taxi gidari, irakasle, kazetari edo liburu-saltzaile, jende askoren ahotan dabilen esaldia da. Baita sekula liburu bat irakurri ez duenaren ahotan ere. Baina zehatza al da baieztapen hori? Errealitate objektibo bati dagokio, ala iraganaren idealizazio soil bati? Berrikuntzak eta aurretik jakin ezin daitekeenak sortzen dituzten zalantzen ondorioa al da?**

OHIKO irakurleak (egunero edo astero irakurtzen dituzte liburuak) % 40,4 dira, 2008ko datuen arabera. 2000n, aldiz, % 36 ziren.

ALDIZKAKO irakurleak (hilabetean edo hiruhilabetean noizbait irakurtzen dute) % 14,2 ziren 2008an. Aldiz, 2000. urtean, % 22.

Irakurle EZ DIRENAK (ez dute inoiz edo ia inoiz irakurtzen) % 45,4 dira, 2008ko datuen arabera. Aldiz, 2000. urtean % 42 ziren.

Horrek esan nahi du XXI. mendeko lehenengo hamarkadan irakurtzeko ohitura duten pertsonen ehunekoak, hau da, ia egunero edo gutxienez astean behin irakurtzen dutenenak, gora egin duela; eta sekula irakurtzen ez dutenekin ere horixe gertatu da. Erdiko tarteetan, hau da, aldizkako irakurleak dauden lekuan, berriz, ez da aurrerapen esanguratsurik egin. Inkestek behin eta berriz agerian uzten duten datuetako bat honako hau da: irakurketaren ehuneko handienak zuzenean

hezakuntza mailarekin lotuta daude. Hortaz, zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan, orduan eta handiagoa da irakurleen indizea. Ikus daitekeenez, egoera horrek ez du zerikusirik irudiarren nagusitasun mailarekin.

Baina lehen? Zer gertatzen zen, esaterako, duela hiru hamarkada?

1978an, sortu berria zen Kultura Ministerioak *Demanda cultural en España*<sup>2</sup> izeneko inkesta erraldoia egin zuen. Demokraziaren hasieran Espainian zegoen egoera kulturalaren isla egokitzen har daiteke gaur egun. Liburuaren irakurketari dagokionez, emaitza hauek atera ziren: herritarren % 36,4k egunero edo noizean behin irakurtzen zuela zioen (2008an % 54,6ra igo zen datu hori), eta, aldiz, % 63,6k zioen ez zuela inoiz edo ia inoiz irakurtzen (2008an datu hori % 45,4koa zen).

Datu horien arabera, ez dirudi herritarrek irakurtzeari utzi diotenik, itsukeriaz behin eta berriz horixe esaten bada ere. Hobeto esanda, guztiz aurkakoa gertatu da. Gainera, kontuan izan behar dugu irakurketaren mantentze edo zabalkunde txiki hori ikus-entzunezko hedabideen eta teknologia berrien loraldean gertatu dela. Zehatzagoa da zabalkunde txiki bat izan dela edo ohiko irakurleen eta aldizkako ehunekoei eutsi egin zaiela esatea. Herritarren % 50en inguruko datu hori ez dago Euro-


pako beste herrialdeetako datuetatik oso urrun.

Beste gauza bat da, guztiz ezberdina, irakurleen kopurua nabarmen igo dadin nahi izatea. Eta ez soilik eleberririk irakurtzen dituztenen kopurua, baita egunkariak edota saiakera filosofikoak edo zientifikoak irakurtzen dituztenena ere. Paperezko liburuen bidez ez ezik, mota guztietako pantailen bidez. Gogo edo nahi hori guztiz zilegizkoa da, baina, ezin da nahastu irakurketaren gainbeheraren propagandarekin. Azken ideia hori indartzen jarraitzen badugu, eskolatzeko unibertsala, liburutegi publikoen sorrera edo liburuaren edizioetan egindako berrikuntzak alferrikako neurriak direla onartzen ariko gara. Eta hori ez da zentzuzkoa.

### Eta gazteak, zer?

Esan dudana bezala, irakurketaren gainbeheraz hitz egiten denean, gazteak jotzen ditugu galera handi horren erantzulez. Salaketa bidegabea da hori. Baieztapen biribila egin badaitenke, honako hau litzateke: egungo gazteek irakurketarako jarrera ona dute, aurreko belaunaldiekin alderatuta.

Gaur egun, 24 urte arteko herritarren artean % 71,1ek sarri edo aldizka irakurtzen dute; aldiz, 2000. urtean % 71 ziren. Bestalde, 2008an, 25 eta 34 urte



<sup>2</sup> *Demanda cultural en España (1978)*, Madrid: Kultura Ministerioa. Secretaría General Técnica. Gabinete de Estadística e Informatica.

arteko gazteen % 63,10ek irakurtzen zuen; duela hamar urte, ostera, %61 ziren irakurleak. 2008an, 35 eta 44 urte bitarteko helduen % 67 ziren irakurleak, eta 2000. urtean, berriz, % 62k irakurtzen zuen. 45 eta 54 urte arteko herritarren % 58,2k irakurtzen du orain; eta duela hamar urte, %52 ziren irakurleak. Azkenik, 2008an, 55 urtetik gorakoek %37,5e irakurtzen zuen, eta hamar urte lehenago, %42k.

Gaureguno datuak 1978. urtekoe-kin alderatzen baditugu, 30 urteko demokrazian, ukalezina da irakurle gazteek aurrera egin dutela. Inkesta batetik bestera berresten joan den errealitatea da.

Zein ondorio ateratzen dugu horretatik guztitik? Gazteak direla, alde handiz, gehien irakurtzen dutenak. Eta, al-diz, helduek elikatzen dutela irakurtzen ez dutenen kopurua (zenbat eta zaharrago, nabarmenago). Era berean, esan dezakegu ehunekoek ia bere horretan jarraitzen dutela, ez dagoela al-daketa esanguratsurik. Orduan, zergatik jarraitzen dugu helduen gabeziak eta porrotak haur eta gazteei leporatzen? Ez daukat erantzun argirik. Ez bada belaunaldi guztiek, heldutasunera iristen direnean, iraganeko oroitzape-nen malenkoniara jo, eta nork bere gaz-tarora imitatu beharreko eredu gisa go-raipatzeko ohitura izaten dutela pen-tsatzeara. Bide batez esanda, milaka urte dituen ohitura da. Izan ere, Sokratesen garaian ere gazteen ohitura onak gal-tzen ari zirelako kexatzen ziren.

Ez dirudi, behintzat, arazoa gazteen irakurtzeko ohituren beherakada denik. Errua beraiei botatzea okerra izate-az gain, bidegabea ere bada. Horrek, era berean, gazteen irakurtzeko zaleta-sun faltaren ardura eskolari botatzea dakar. Eta onartezina da. Izan ere, na-gusiki eskolari esker mantentzen baitira irakurleen datuak. Okerrena, baina, zera da: irakasle askok iruzur horiek be-ren egin, eta zabaldu egiten dituztela. Jarrera horrekin euren lanari sona ken-

du baino ez diote egiten. Irakasleak eu-rak ari baitira, eta ez beti baldintza one-netan, gazteak irakurle bilakatzen.

Gauregun, sarean hitz egiten eta jo-lasten pasatzen dute aisialdia gazteek. Hori kontuan izanda, inozokeria litza-teke Internet eta bideo jokoak existitu-ko ez balira, gazte horiek irakurtzen ari-ko liratekeela pentsatzea. Benetan, pentsatzen al du inork horrelakorik? Nire ustez, ez lirateke buru belarri ira-kurtzen ariko, beste jolas batzuetan ibi-liko lirateke. Ongi pasatzeko beste mo-du batzuk bilatuko lituzkete, mendez mende gertatu izan den bezala.

### Pentsatzen jarraitu

“Lehen orain baino gehiago irakur-tzen zen” dioen topikoa hausteko balio behar lukete datu objektiboek. Eta gure arreta analisi zorrotzagoak eta ekimen ausartagoak behar dituzten gai garrant-zitsuagoetan jarri beharko genuke. Honako hau litzateke, esaterako, gal-dera on bat: zergatik ez da lortzen gutxi gorabeherako irakurzaletasun egon-kor bat, ikasgeletatik pasatu ostean? Erantzunaren izaeraren araberakoa izango da, neurri handi batean, irakur-zaletasunaren etorkizuna. Eskolatze u-nibertsalaren eta oraindik murrizta den irakurketa praktikaren elkarrekikota-sun faltak hausnarketa sakona behar du, zalantzarik gabe.

Bestalde, ondoko gai honi ere begi-ratu behar litzaioke: irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen publiko eta pribatuak biderkatu diren hamarkada hone-tan, zergatik ez da proportzionalki igo ohiko irakurleen kopurua? Erantzun ahal izateko, sakon aztertu beharko li-tzateke, eskolatik eta publizitatetik ha-ratago, irakurtzeko zaletasuna zehaz-ten duten zein beste elementu egon daitezkeen.

Bada beste gai bat ere: irakurritako-aren ulermena lehen mailako hezkun-tza arazoa da oraindik, zergatik? Bada, PISA eta PIRLS txostenek behin eta be-riz zehazten dutenez, hainbat faktore

**Bada argudio sendo bat: estatistikak. Gure arreta zen-bakietan jartzeak giza espe-rientzia kontu kuan-titatibo eta uniforme bihurtzeko arriskua dakarren arren, ira-kurketa ohiturei buruzko inkestek orientabideak eman diezazki-gukete. Irakurketaren espe-rientzia ezin da epaitu, soilik ezer ere ez, asko edo gutxi irakurtzen den esanez. Hori baino konplexuagoa da. Irakurketaren maiztasunarekin eta kopuruarekin baino gehia-go, moduarekin, intentzioare-kin edo irakurketaren ondorio kognitibo eta emozionalekin du zerikusia.**



daude, ulermenean eta irakurketarako zaletasunean eragin zuzena dutenak. Besteak beste, gurasoen ikasketa mai-la, estatus sozio-ekonomiko eta kultu-rala, liburuak edukitzea, etxean irakur-tzen den ala ez... Ez dirudi zeregin ho-rretan eskolak duen ardura gutxietsi behar denik.

Nire iritziz, gai horiek guztiak dira (beste batzuen artean), premiaz, gure ardura behar dutenak, ustez irakurleak galtzen ari garelako aieneka aritu edo oraina gutxietsiz iragana gorai patzen aritu beharrean. Gaur egungo egoera konplexua izan arren, ez genuke hez-kuntzako profesional gisa dagokigun arduraren amore eman behar. Erabat si-netsita nago gure mundua duela men-de erdikoa baino interesgarriagoa dela, eta mundu honetan jardun behar dugu irakurtzearen alde, gogoz eta konfian-tzaz.

<sup>3</sup> Ikusi: <http://www.mec.es/multimedia/00005713.pdf>

<sup>4</sup> Ikusi: [http://www.institutodeevaluacion.mec.es/contenidos/internacional/pirls2006\\_informe.pdf](http://www.institutodeevaluacion.mec.es/contenidos/internacional/pirls2006_informe.pdf)

# HIK HASIko hainbat ale monografiko denon eskura.

Nahi duenak jaisteko aukera du



1. Irakurketa–idazketa
2. Haur-gaztetxoan marrazki ekoizpenaren bilakaera
3. Baloreak irakaskuntzan
4. Atxiki-mendua
5. Vigotski
6. Afektibitatea eta sexu hezkuntza
7. Kohlberg
8. Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9. Etorkinak gure eskolan
10. Antzuolako herri ikastetxearen proiektua
12. Heriotza heziketan
13. Jerome Seymour Bruner

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) *helbidean sartuz*



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

**martxoa**

**berriak**

# Hernaniko Langile eta Beasaingo Alkartasuna beren hezkuntza proiektuen defentsan



*Azken egunetan asko idatzi da bi kasu horiei buruz. Interesgarria da Amagoia Mugikak Gaur8 astekarian idatzi zuena:*

**Lakuako Hezkuntza Sailak Hernaniko eta Beasaingo hainbat ikastetxe batzea erabaki du. Eta agindu moduan egin du jakinarazpena; fusioa bai ala bai. Ondorioz, 2010-2011 ikasturtean DBHko lehen maila egin behar duten 12 urteko neska-mutikoak oraindik existitzen ez diren zentroetan matrikulatu behar dituzte gurasoek. Hori da, behintzat, agindua.**

Hernanin eta Beasainen 12 urteko seme-alabak dituztenek oraindik existitzen ez diren zentro banatan aurrematrikulatu beharko dituzte. Horrela erabaki du Gasteizko Gobernuko Hezkuntza Sailak eta 2010-2011 ikasturtean DBHko lehen maila egin behar dutenei proiektu horixe eskaintzen die: eskola mamu bat.

Herri batean zein bestean, gaur egun dauden DBHko zentro guztiak fusionatzea erabaki du Lakuak eta erabaki hori inposaketa moduan iritsi zaie ikastetxeei. Hartara, zalantza eta haserrea sumatzen dira bi herrietan. Aurrematrikulazio epea zabalik da dagoeneko, eta bai Hernanin bai Beasainen gurasoen artean galdera bat nagusi da:

«Nola matrikulatu seme-alabak existitzen ez den zentro batean eta zehaztu gabe dagoen proiektu pedagogiko batean?».

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1996. urtean ezarri zen eta orduan finkatu zen egun indarrean dagoen eskola mapa. «Orduan ez genuen espero Hernanin hiru DBH izatea eta garai hartan harremanetan jarri ginen herriko beste ikastolekin eta proiektu bat egin genuen. Aurreikusten genuen fusioa gertatu egingo zela eta ondo egin nahi genuen», gogoratu du Pello Erdoziak, azken 30 urteotan Langile ikastolan irakasle denak.

Eskola mapa egin zutenean ezustea izan zen, azkenean Hernanin DBHko hiru zentro ezarri baitziren. Orduetik urte dezente joan badira ere, Hezkuntza Sailatik behin eta berriz gogorarazi die fusioaren kontua hor zegoela, «baina beti arazoa gurea balitz bezala, gure artean konpondu beharko bagenu bezala», zehaztu du Ixiar Eigurenek. Ixiarrek ere 30 urtetik gora eman ditu Langileen irakasle.

2005 eta 2007 artean Hezkuntza Sailak norabide horretatik egin ziren proposamena Hernaniko ikastetxeei; herri mailan lan egin eta elkarren artean adostasunak topatzen saiatzeko agindu zien. «Ikastetxe guztiak elkartu eta

lan bat egin genuen. Baina une hartan ikusi genuen puntu batzuetan adostasuna lortzea ezinezkoa zela. Eta 2007 amaieran txosten bat egin zen bilera haietako ondorioak jasoz. Hezkuntza Sailak, bere aldetik, jarrera ofizial bat aurkezteko eskatu zuen. Herriko beste ikastetxeak fusioaren alde agertu ziren eta Langile, kontra. Baldintza haietan fusiorik ezin zela eman esan zuen Langilek, horrelako proiektu garrantzitsu batek lanketa sakonagoa eta serioagoa behar zuela. Erantzun hori lan asko egin ondoren eman zen, bilera eta hausnarketa askoren emaitza izan zen. Eta elkarrekin lanean segitzeko proposatu genuen», laburbildu du Kistiñe Lujanbio gurasoak.

Orduetik, ez zuten ez erantzunik ez proposamenik jaso Hezkuntza Sailatik, harik eta jakinarazpena 2009. urteko amaieran agindu moduan etorri zaien arte. «Hezkuntza Sailak mahai gainean hauxe jartzen digu: fusioa bai ala bai. Dagoeneko hasi da zentro berri horretarako matrikulazioa, DBHko lehen mailakoak hara nahi dituzte bidali. Eta ez dakigu zein proiektu pedagogiko izango duen, nola funtzionatuko duen, zein izango den zuzendaria, irakasleria, ez dauka izenik eta legalki ez da existitu ere egiten. Eta gure seme-alabak existitzen ez den zentro batean matrikulatu behar ditugu», agertu du Urtzi Errazkinek, Langile ikastolako guraso eta ikasle ohia denak.



# Larraulgo, Zubietako eta Itziarko eskoletako ordezkariak Legebiltzarraren aurrean



Eskola Txikien gaia landu duen legez besteko proposamena dela eta, eskola horietako ikasleak eta familiak Eusko Legebiltzarraren aurrean bildu ziren joan den otsailaren 17an.

Eskola horiek mantentzeko, beraien borondatea errespetatzeko eta irakaskuntzak ingurunearekin izan behar duen loturari eusteko eskatzen dute familiak. Izaskun Carrera, Gipuzkoako Eskola Txikien presidentek familien eskaera errepikatu zuen: “Gure eskolak eta euren kalitatea babestu daitezela. Izan ere, horixe baita hezkuntza aniztasuna eta herrietako bitzta ber-

matzeko modu egokiena”.

Elkarretaratzean egon ziren Gipuzkoako Larraul, Zubieta eta Itziar herrietako eskoletako ordezkariak. Eskola osatzeko baldintzak betetzen dituzten arren, ezezkoa jaso dute euren eskaerak eta murriztu egin diete eskaintza. Honakoa adierazi zuten: “Ez dugu nahi gure seme-alabak eskolara joateko guztiz beharrezkoa dena baino gehiago mugitu behar izatea. Gure eskoletan ikasleak gustura sentitzen dira, gure eredu pedagogikoak positiboki aztertzen dira Europa osoan, bigarren hezkuntzara pasatzean oso onak dira gure

emaitzak, lankidetzan eta aniztasunean ikasten dugu”.

Hainbat galdera jarri zituzten mahai gainean Eskola Txikietako ordezkariak: “Zergaitik ez ditu onartzen Hezkuntza sailak aurreko gobernuek onartutako erabakiak eta Larraulgo eskola errespetatu? Lehen hezkuntza osoaren hedapena Zubietan? Itziarren eskola bateratzea?”. Hartutako konpromisoak betetzea eskatzen dute: “Gure familiak nahi duten eskola aukeratu ahal izatea, legeak esaten duen moduan, hain zuzen”.

“Gure herriak hazi egin dira familiek bertan geratu nahi dugulako. Asko ohartu direlako herri inguruetan bizitzek dituen abantailez”. Hiru herri horiek hazi egin dira, eta eskolak ere hazi egin behar dutela uste dute: “Ez da egia 6-8ikaslerentzako obrak eskatzen ditugunik. 60-80 edo 120 ikaslerentzako obrak eskatzen ditugu”, azaldu dute.

Dena den, Eusko Legebiltzarrean egindako eztabaida eskertu zuten Eskola Txikietako lagunek eta euren leloa zuten: *Eskola Txikiak bizirik herri txikiak bizirik!* “Gure eskolak mantenduz, soilik, lortuko da gure geografia osoko ingurune desberdinetan bizi ahal izatea”, gaineratuz amaitu zuten agerraldia.

## Mobilizatzeko deia egingo du IAK “eskubide urraketak” salatzen

Martxoaren 12an geldialdiak eta mobilizazioak egingo dituzte hezkuntza ertainean. Martxoaren 18an, aldiz, *Inposaketarik ez! Borrokatu marra gorriak* lelopean mobilizazioak egingo dituzte unibertsitateetan. “Azken urteetan bizi izan den eraso espainol eta autoritario handiena ikusirik» ikasle abertzaleak “eskuak gurutzaturik” ezin

dira geratu eta, mobilizazioak antolatu ditu Ikasle Abertzaleak taldeak.

Ikasleen eskubideen eta Euskal Eskola Nazionalaren alde, “inposizio guztiak salatzen”, une dela uste du IAK. “Azkenaldian, egoera larria are eta gehiago okertuko duten neurriak hartzen ari dira administrazioetako hezkuntza sailak”, gaineratu dute. Isabel

Zelaa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta Alberto Catalan Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilaria egin dituzte egoera horren arduradun: “Euskal ikasleok ditugun eskubideak guztiz urratuko dituen erasoaldi espainolista eta autoritarioa martxan jartzen ari dira”.

# Euskal Eskola Publikoaren 19. jaiaren leloa eta irudia aurkeztu dituzte

Datorren ekainaren 6an ospatuko da Amurrion (Araba) Euskal Eskola Publikoaren 19. jai *Euskal Eskola Publikoa Geroa Landuz* lelopean, Aiara bailarako ikastetxeek hala aukeratuta.

Esanahi bikoitza eman diote “Landuz” hitzari. Etorkizuna eta lurra, biak lantzeak duen garrantzia nabarmendu nahi izan dute “Etorkizuna izan nahi badugu, hainbat arlo landu behar ditugu gaur egun: gure eskola, gure ingurunea, elkarbizitza, berrikuntza, euskara, kultur aniztasuna eta beste hainbat”.

Leloarekin batera irudi alai osatu dute. Amurrioko eskolaren “aniztasuna eta bizitasuna islatu nahi duen logotipoa”, hain zuzen.



## Hezkuntza Sareko I. Mintegiak antolatu ditu Bilgune Feministak

**Hezkuntza Sareko I. Mintegia**  
BF-ren aurkezpena eta hezkuntza sektorearen ibilbidea  
Sarearen garrantzia, helburuak eta erabilera.

**Otsailaren 27an 10,30etan**  
Bilbon (La Bolsa)

**Martxoaren 6an 10,00etan**  
Gasteizen (Amaia kultur elkartearen)

**Kontzientzia feminista zabaldu!**

Otsailaren 27an egin zuten lehena Bilboko La Bolsa aretoan eta datorren larunbatean, martxoak 6, Gasteizko Amaia Kultur Etxean bilduko dira 10:00etatik aurrera.

Bilgune Feministako hezkuntza sektoretik orain arte martxan jarri diren proiektuak aurkeztuko dira mintegian, besteak beste Hezkidetzeta Gida eta tailerrak.

Mintegiaren helburu nagusia, baina, elkar ezagutu eta hezkuntzarekin harremanetan dauden pertsonen sare feminista osatzea da. Sarearen bitartez, kontzientzia zabaldu, esperientziak elkartrukatu, parekidetasunaren bidean indarrak bildu nahi ditu Bilgune Feministak.

Bakoitzak bere eremutik eta askotan bakarrik egindako lanak mahai-gaineratu eta lehendik dauden esperientziekin aberastuz aurrera begirako harremanak sendotzea da mintegien asmoa. “Finean, hezkuntzaren munduan gabiltzan emakumeak kontaktuan jartzeko saiakera bat da”. Aurrerago beste hiriburuetara zabalduko dute deialdia.

# Seaskaren Integrazio Batzordea, erronkaz erronka



Seaskaren Integrazioa Batzordea hamaikagarren urtea betetzera doa. Ahalmen urriko haurren integrazioa bermatzeko jardun du lanean urte hauetan guztietan, baina gero eta lan zailagoa bilakatzen ari da. Berdintasunaren erronka, ataka larrian izenburua jarri zion Aitor Renteria kazetariak BERRIA egunkarian Seaskaren Integrazio Batzordeari buruz egindako erreportajeari:

“Larrialdialdiko erronkak ohikoak bihurtu dira, tamalez, Seaskaren Integrazio Batzordearentzat. (...) Aurten,

115.000 euro lortu beharko ditu, eskolaratu nahi dituen 25 hurrei aukera hori emateko”.

Seaskaren integrazio xedeak, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan sustrai sakonak dituela dio erreportajeak: “26 neska-mutili eskolaratzeko bidea zabalduko die 20 ikastolatan; sei ikasle ama eskolatan ari dira, 16 lehen mailan eta hiru kolegio-

tan. Horiek eskolatzeko gastuak handiak dira. Gainera, 15 hurrek Eskola Bizirako laguntzaile bana behar dute, eta Frantziako Hezkuntza Ministerioak zazpi baino ez ditu ordainduko. Bertze zazpi hurrek hezitzaile bana eta bi eskola laguntzaile behar dituzte. Aurrekontu hori osoki gelditzen da Integrazio Batzordearen bizkar”.

Besteak beste, Domi-

nique Idiart Seaskako Integrazio Batzordeko presidentearen hitzak biltzen ditu Renteriak: “Aurten eskola sistema guztietan Eskola Bizirako laguntzaileen kopurua handitu bada ere, Frantziako Hezkuntzak ez du postu berri bakar bat sortu”. 2005etik ez ei dute horrelako egoerarik ezagutu.

Arrazoi horiek guztiak tarteko Seaskako Integrazio Kanpainak sostengu kanpaina egin zuen Euskal Irratiekin batera. Irratsei izeneko ekimena egin zuten joan den otsailaren 20an, ahalmen urritasunaren inguruko emankizun bereziak eginez. Herrietan hainbat elkarretaratze eta ekimen ere antolatu dituzte sustengu batzordeek.



## PELLO ELLAKURIA Eskola Kontseiluko presidente ohia hil da

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea zen Pello Ellakuria eta Eskola Kontseiluko presidentea kargua bete zuen 1995. urtetik 2001. urtera arte. “Hezkuntzaren helburua ez dira irakasleen eskubideak, hezkuntza bera baizik. Helburu pertsonalak egongo balira, gainera, ikasleek izango lirateke eta ez irakasleek”, esan zuen aldizkari honetan bertan

1999an egindako elkarriketa batean. Donostiako Irakasle Eskolan Hizkuntza eta Literatura Didaktikoa irakatsi zituen. Eskola Kontseiluko jardunean, ikastetxeen autonomiaren alde egin zuen: “Administrazioak helburu orokorrak finkatu behar ditu, baina ez horiek lortzeko pausoak, hori ikastetxei dagokie.” Joan den otsailaren 10ean zendu zen.





**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen otsaileko eztabaidak utzi duguna...**

**>>> Eusko Jaurlaritzaren curriculum dekretu egitasmoak euskara eta gaztelania parekatuko ditu. Isabel Celaá Hezkuntza Sailburuaren hitzetan, elebitasun orekatua lortzeko helburuarekin. Bide horretatik helburua betetzea posible dela uste al duzu?**

**> Ideia nagusiekin, ados!**

Aritzek idatzitako ideia atsegin dut: ..."elebitasun orekatua" kontzeptua baino, "elebiduntasun orekatua" egokiagoa iruditzen zaidala esan nahi nuke, pertsonok potentzialki dugun hizkuntza-gaitasun batez ari gara eta. Elebitasunaren dimentsio sozialerako erabiliko nuke nik "elebitasun orekatua" kontzeptua.

Josebaren beste ideia honekin ere geratu naiz: ..."oreka" lortzeko egin behar den lehen gauza herrialdeko errealitatea ezagutzea da. Gizartean euskara hizkuntza gutxitua den bitartean eskoletan diskriminazio positiboa eman behar zaio, gutxienez horrela, nolabaiteko parekotasun bat egon dadin. Argi geratu da A ereduarekin ez dela parekotasuna lortzen, ezta Bereduarekin ere. D eredu da parekotasuna lortzen duen bakarra.

Faustik diona, berriz, koherentea da: ...garbi da euskara harreman hizkuntza naturala izango duten guneak izan behar dituztela ikasleek, bestela, ezinezkoa litzateke aipatu "oreka" lortzea. Eskola da haur eta gaztetxo direnentzat horretarako gune egokiena, denek erabiltzen baitute, eta "orekatzeko" (eskubideetan berdintzeko), unerik eta gunerik preziatuena berau da.

Amaiak ere bete-betea asmatzen duela deritzot: ...egoera soziologikoan eta linguistikoan bilatu behar dira emaitzen gakoak. Izan ere, Euskal Herrian egindako ikerketa batzuen ondorioen arabera, euskara eta ingelesa ordu kopuru berdinez ikasita, ingelesa gehiago ikasten da euskara baino. Ingelesa ez dago gaztelaniarekin lehian, euskara, aldiz, bai. Hor adituen arrazonamendua.

Amaitzeko, Begok egiten duen galdera aipatuko nuke: ...logikoena, demokratikoena, zentzudunena... herritar guztiak bertako hizkuntza propioa ezagutzea litzateke, ulertze maila on bat izatea behintzat. Horrela, bakoitzak nahi duen bezala hitz egitea erraztuko luke, besteak errespetatzea, ez inposatzea, ezta? *Dimas M.*

## **Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> "Inposaketarik Ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza" goiburuean, mobilizaziora deitu du martxoaren 13rako, Bilbon, EHBE Euskal Herria Bere Eskola herri ekimenak. Horretarako arrazoi nahikorik badagoela uste al duzu?**

## **Partekatzeko proiektuak**

Eskuartean proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzera bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatzeko aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberrasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

## **Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Lotsatia naiz, eta zer?

A. Mendizabal / J. Mitxelena

ELKAR

Liburu honek Ekiren istorioa kontatzen du. Eki oso mutiko lotsatia da eta, hortzetako aparatua jarri diotenetik, are lotsa handiagoa sentitzen du. Gainera, ikasgelako neska bat atsegin du: Lore. Baina ez da ausartzen bere urtebetetzeko txokolatadara gonbidatzera. Jakin nahi al duzu Loreren-gana hurbiltzeko zer asmatuko duen Ekik? •



## Behinola

GALTZAGORRI

Haur eta gazte literaturako hainbat alor jorratzen ditu urtean bitan Galtzagorri elkarteak kaleratzen duen aldizkariak. Oraingoan, 20. alea dugu eskuartean, eta besteak beste, Joxan Ormazabali elkarrizketa, Xabier Etxanizen eta Manu Lopezek XXI. mendean argitaratutako haur poesiaren gainean egindako azterketa eta ipuinak kontatzeko Kamishibai teknika japoniarrari buruzko azalpenak bildu dituzte. •



## Soziolinguistika aldizkaria

SOZIOLINGUISTIKA

KLUSTERRA

Dagoeneko aldizkariaren 73. alea kaleratu du Soziolinguistika Klusterrak. Ale honek *Euskara lan munduan... lanean!* du izenburua eta zazpi artikuluren bidez, hainbat lan eremutan euskararen inguruan egiten ari diren urratsen berri ematen dute. Gainera, 2008ko Nafarroa Oinez egunaren azterketa soziologikoa ere badakar. •



## Zaintxo

Pello Añorga / J. Mitxelena

EREIN

Heriotza eta dolua landu ditu Pello Añorgak liburu honetan. Pauloren amona hil berria da eta galderak egiten hasiko da. Aitak, baina, ez du jakingo zer erantzun. Ez da erraza, amonaren hutsunea oso handia baita. Dena den, aitak horrela erantzungo dio: "Sumatzen al duzu? Nahiz eta ez ikusi orain amonaren Zaintxo gurekin dago". •



## Juan Mari Lekuonari omenaldia

EUSKALTZAINDIA

Juan Mari Lekuona euskaltzain eta Euskaltzaindiaren Literatura batzordeko kidea izan zenaren omenezko liburua da hau. Bertan, hogeitazazpi artikulu bana idatzi dute Juan Mari Lekuona gogoan. Besteak beste, Iñaki Aldekoak, Ur Apalategik, Pello Esnalek, Ana Toledok eta Patri Urkizuk hartu dute parte. Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurra ere badago. •



## Ihitzza aldizkaria

CEIDA

Ingurugela eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua.

CEIDAk 31. aldizkaria argitaratu berri du, 2009-2010eko neguan. "Bizitzeko eta bizitzarako tokiak" du gai nagusia. Halako atalak agertzen dira bertan: Gaia zabaltzen, Jakinaren gainean, Bitakora kaiera, Guztiok elkarlanean, Ekin eta ekin, Bizkor ibili gero, Begiratokia, Klasetik at, Eta gurasoek zer?... •

# ... nora joango gara?

## Sagardoetxea Zuhaitzetik upelera

Urtarrilean abiatu zen aurtengo sagardo denboraldia, non eta Astigarragan (Gipuzkoa). Herri txikia izan arren, sagardotegi gehien duen Euskal Herriko herria da. Eta, hala izanik, ez da harrizkoa sagardoaren museoa hantxe egotea: Sagardoetxea, hain zuzen. Duela hiru urte eta erdi, 2006ko irailean, zabaldu zituen ateak. Helburu zehatz batekin: sagardoaren kulturaz gozatzeko gune bat izatea.

Sagardoaren museoak 20.000 metro koadro eta hiru gune ditu: museoa, sagastia eta dastatzeko txokoa. Horietan guztietan modu ludiko, didaktiko eta jostagarrian erakusten dituzte sagardoaren atzean ezkututzen diren sekretuak.

Museoa sagastiaren alboan dago eta leku itxia da. Museoan, teknologia aurreratuenean laguntza sagarraren eta sagardoaren historia, iragana, oraina eta etorkizuna ezagutzea da. Besteak beste, Euskal Herriko kulturaren duen garrantzia azaltzeko panel informatiboak, material interaktiboak eta jokoak daude eskuragarri.

Horiek guztiak ikasita, edo ezagututa bederen, sagastira egiten da bisita. Sagarraren inguruko azalpenak modu



dinamikoan erakusten dira han. Zerbait azalpen jarduera, erakusketa, txertaketa eta laboreren bidez bisitariak naturara hurbilduko dira. Sagardoetxeako sagastia eta sagarrak ikusiz eta aztertuz, besteak beste.

Dena den, ez da gauza bera bisita neguan, udaberrian edo udan egitea. Zergatik? Bada, garaiaren arabera lan bat edo beste dagokiolako sagardoaren lanketari. Hori dela eta, unean uneko jarduerak prestatzen dituzte hurbiltzen direnentzat. Bisitak banaka edo taldeka egin daitezke. Eta ikastetxei bereziki eskainitako jarduerak ere badituzte.

### Hezkuntza eskaintza

Ikasleek, sagastian, sagardo egile-

en teknikak eta sekretuak ikusiko dituzte, eta sagarrondo, hazitegi, sagar mota desberdin eta antzinako dolare baten bueltan ibiliko dira. Museo gunean, berriz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren iturburua, erremintak eta lanketa prozesua ezagutzeko aukera izango dute, sagardoaren kulturara gerturatzeko. Hauxe da jardueren egutegia, garaiaren arabera:

#### Urte osoan:

Dasti ipuin kontalaria: haurrentzako ipuin moduko bisita gidatua.

#### Neguan: landatze garaia

Zuhaitzak aldatu, haziak eroin eta sagarrondo txertaketa egiten da, besteak beste, urtarriletik apirilera.



### Udaberrian: sagastiak loretan

Polinizazio garaia da; erleen lana ikusteko aukera paregabea ematen du eta, gainera, ezta dasta daiteke eta loretik fruiturako prozesu guztia ikus daiteke. Sagarrondoan izurrite eta gaitz ohi-koenak identifikatzen ere udaberrian hasten dira; apiriletik urrira, gutxi gora-behera.

### Udan: sagarrak zuhaitzetan

Inausketa garaia: ilargiaren eragina udako inausketan. Aisialdi taldeentzako jarduera bereziak antolatzen ditu garai horretan Sagardoetxeak. Besteak beste, sagarrarekin, sagardogintzarekin eta ingurumenarekin lotutako jolasak prestatzen dituzte, elkarrekintza eta ingurumen hezkuntza lantzeko.

### Udazkenean: sagarren bilketa

Sagarra heldua dagoenean kizkia-ekin biltzen da. Ondoren, hainbat sagar mota dastatu eta antzinako lanketa prozesua ezagutzeko aukera dago: sagarra sumilekin jo, zanpatu, eta lorturiko muztioa dastatzen da amaieran.

### Jarduera osagarriak

Astigarragak, halaber, egun-pasa biribiltzeko hainbat aukera eskaintzen ditu: pilotaleku estalia, igerilekua, kanpoan bazkaltzeko guneak, Santiagomendiko Natur Eskola...



## SAGARDOETXEA

Kale Nagusia, 48  
20115 ASTIGARRAGA  
Gipuzkoa



### Informazio gehiago:

- [www.sagardoetxea.com](http://www.sagardoetxea.com) helbidean  
Telefona: (0034) 943 550 575.

### Egun baterako proposamena:

Batetik, hurrei sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzeko, eta bestetik, landa ingurune euskara ezagutu eta praktika dezaten, ondorengo jarduerak proposatzen dituzte:

#### GOIZEAN:

- Sagardoetxean bisita gidatua eta haur jolasak. Sagardoetxeako gida batek erango du goizeko saioa. Iraupena 2 ordu eta 30 minutu ingurukoa izango da.

#### EGUERDI-ARRATSALDEAN:

**A PROPOSAMENA:** herrian bazkaldu eta pilotalekuan jolas libreak. (2 euro haur bakoitzeko)

- Herriko plazan dagoen pilotaleku estaliak bazkaltzeko eta jolasera-ko aukera egokia ematen du. Hori horrela izanik, zuen herrietara itzuli aurretik Astigarragan bertan bazkaltzeko eta bazkalostean hurrekin jolasean aritzeko aukera izango duzue.

**B PROPOSAMENA:** herriko igerilekuan bazkaldu eta arratsalde-pasa. (5 euro haur bakoitzeko)

Astigarragan egun-pasa osatu nahi dutenek, Astigarragako igerilekura joateko aukera izango dute, han bazkaldu eta arratsalde dibertigarri bat pasatzeko. Igerilekuan, ur jolasak lantzeko eta atsedendiaz gozatzeko aukera izango dute hurrek.

Oharra: jolas libreak ez ditu Sagardoetxeako gidak eramango, begiraleak baizik.

#### MATERIAL DIDAKTIKOA

Sagardoetxean sagarraren kulturaren gaineko material didaktikoa osatu eta adin tarte bakoitzerako koadernoak prestatu dituzte, beren jakintza eta prestakuntza kontuan hartuta. Material didaktiko horri esker, Sagardoetxearen eginiko bisitan ikasitakoa ikasgelan lantzeko aukera izango dute hurrek.



# atzeko atetik



**Martxel TOLEDO**

ESAITeko koordinatzailea

Berrogeita hamarreko hamarkadan Oiartzungo Izostegi baserrian jaiotakoa naiz. Baina, Oiartzunen jaio arren, 12 urte arteko ikasketak, Lezoko Une eskola nazionalan egin nituen. Eta horren zergatia nahiko sinplea da: eskola hori gu bizi ginen baseritik gertuen zegoen ikastetxea zen. Oinez joanda, gutxi gorabehera, 20 bat minutura.

Garai hartako beste ume gehienak bezala, ni ere bost edo sei urte nituela hasi nintzen eskolara joaten. Hiru anaiak elkarrekin joaten ginen eskolara, eta zelai batzuk zeharkatuz egiten genuen ibilbidea. Gure “maestra”, horrela deitzen genion irakasleari, Donostian bizi zen, eta Maria Belen Ezkurdia zuen izena. Ez dakit zergatik, baina uste dut asko maite ninduela, hori esa-

## UNEko txokotik

ten zidan behintzat. Agian txintxoan nintzelako izango zen, edo agian, zeinek daki, Gabonetan, ohitura zaharrei jarraituz, gure amak emanda, opari gisa, baserrian hazitako oilasko edo untxiren bat eramaten niolako. Eta oparitzo horregatik edo, besteak baino masaileko gutxiago jasotakoa naiz. Garai haietan, maisu edo maistragandik masailekoa jasotzea oso ohikoa izaten baitzen.

Eskolan, neskak gela batean egoten ziren, eta gu, berriz, alboko beste batean. Gure etxeko hizkuntza euskara izan arren, eskolak erdara hutsean ematen genituen. Horrek zailtasunak sortzen zituen, gehienok, baserriko umeak izanik, gaztelaniaz tutik ere ez genuelako ulertzen. Baina ez zegoen beste aukerarik. Beste garai batzuk ziren haiek!!

Erljioak egun baino garrantzi handiagoa zuen ikasketetan, eta agian horregatik edo, urtean pare bat aldiz herriko apaiza, Don Ramon, eskolara etortzen zen, guri apaiz izateko aukera eskaintzera. Baina ez dut uste gure eskolatik horretarako inor apuntatu zenik. Erljio horren eraginez edo, nesken eta mutilen arteko harremanak ez ziren egungoak bezalakoak izaten, bata bestea ukitzea ere bekatu zela esaten zigutelako. Hala ere, gustuko genuen jokoa, neska eta mutilen arteko “txurru-

tena, media manga eta mangueton” izenarekin ezagutzen zen hura zen, hain zuzen, joko horrek mutilen eta nesken arteko gorputz ukitze zuzena ahalbidetzen zuelako. Eta, jakina, horretarako guk aitzakia gutxi behar!!

Kirola egitea ere maite nuen, eskolako azpiegiturak horretarako aukera handirik ematen ez bazuen ere. Orduak eta orduak pasatzen nituen jolastan, eta, horregatik, gero etxera buelta egiterakoan, lasterka etortzen nintzen, berandu iritsiz gero aita eta ama haserre jartzen zirelako. Gaztetxoan nintzen arren, baserrian gurasoei lagundu beharra zegoen-eta.

Nik adin horretan ez nuen asko pentsatzen etorkizunean. Baina gurasoek bai, batik bat amaxok. Beti esaten zidan “ofizinista” izan behar nuela, “listua” omen nintzelako eta, gainera, letra polita nuelako.

Batxiler ikasketak bukatu ondoren, Errenteriako akademia batean kontabilitatea eta mekanografia ikasten ibili nintzen. Gero, hemezortzi urterekin, enpresa handi bateko bulegoetan bulegari aritu nintzen eta lehen soldata jasotzen nuen. Bulegoan hogeita hamar urte eman ondoren, egun, beti gustuko izan dudana kirolarlorako saltsetan murgilduta nabil. Eta oso gustura nago.



**Irakasleok eta animatzaileok, halako marko orokor batean lotu behar ditugu eguneroko ekintzak, denak mosaiko baten zatiak balira bezala.**

Imanol Urbietza

**INFORMAZIARIK EZI!**

**ELUSKAL HERRIK  
BERE HEZKUNTZAN!**

**manifestazio  
ekitaldi  
nazionala**



hezkuntzadeialdia

Martxoak 13  
**Bilbo**  
Arriatik-Arriagara - 17:30

# ZIENTZIA UDALEKUAK 2010



12-14 urte  
14-16 urte

Izena eman eta presta zaituz  
uda zientziarrigarri bat bizitzeko

Esperimentuak, abentura, naturaren  
ezagutza, ur-jolasak, irteerak...  
Zientzia da uda honetarako planik onena!



Zientziaren  
ELHUYAR  
komunitatea



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Izena emateko epea:  
martxoaren 15etik 31ra

Informazio gehiago eta izen emateak:  
<http://udalekuak.elhuyar.org>  
tel.: 943 36 30 40